ADMINISTRAZIO KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA

ZERBITZU KONTRATUA

Prozedura irekia

Expediente zk: 008/25

Xedea: Haurreskolak Partzuergoaren jarduera garatzeko beharrezkoak diren segurtasun eta babes pertsonaleko aholkularitza eskainiko duen enpresaren zerbitzua kontratatzea

Edukia:

Kontratuaren berariazko klausulak.

Baldintza orokorrak.

KONTRATUAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

I.KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK 5

1.-Kontratuaren xedea 5

2.-Kontratu-izaera duten dokumentuak 6

3.-Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 6

4.-Kontratuaren balio zenbatetsia 6

5.-Prezioa eta ordainketak 6

6.-Kontratuaren indarraldia: kontratuaren iraupena edo egiteko epea. Luzapena 7

7.-Publizitate gastuak 7

8.-Bermeak 8

9.-Aseguruak 8

10.-Subrogazioari buruzko informazioa 8

11.-Kontratau betearazteko baldintza bereziak 8

12.- Kontratuaren funtsezko betebeharrak eta ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko beste betebehar batzuk 10

13.-Zigorrak 11

14.-Azpikontratazioa 11

15.-Kontratua aldatzea 11

16.-Kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifikoak 11

17.-Kontratuaren xede den prestazioari buruzko klausula gehigarriak 12

II.ADJUDIKAZIOA-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK 12

18.-Administrazio-organoak 12

19.-Izapidetzea eta adjudikazio-prozedura 14

20.-Bitartekoen kaudimena, sailkapena, gaikuntza eta baliabideen adskripzioa 14

21.-Adjudikazio-irizpideak 15

22.-Berdinketa hausteko irizpide espezifikoak 17

23.-Gutun-azal bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa 18

24.-Eskaintzarik onena aurkeztu duten lizitatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak 19

25.-Prozedurari buruzko klausula gehigarriak 20

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

III.BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK 20

26.-Kontratua lagatzea 20

27.-Prozeduran eta kontratuan sartutako gizarte- eta ingurumen-alderdien eta beste politika publiko batzuei dagozkien alderdien txertaketaren jarraipen-taula 20

KLAUSULA OROKORRAK

I.KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK 22

1.-Kontratuaren xedea 22

2.-Kontratu-izaera duten dokumentuak 22

3.-Kontratuaren araubide juridikoa 22

4.-Gai hauei buruzko informazioa ematea: zerga-arloa, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta aniztasun funtzionalen bat duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, desgaitasunen bat duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra, datuen babesa eta lehiaren defentsa 23

5.-Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kreditua egotea, aurretiko izapidetza eta balio zenbatetsia 24

6.-Kontratuaren prezioa eta kontratuaren gehienezko aurrekontu mugatzailea 24

7.-Prezioen berrikuspena 25

8.-Kontratuaren indarraldia: gauzatzeko epea edo kontratuaren iraupena. Luzapena . 25

9.-Bermeak 25

10.-Kontratatzailearen profila eta kontsultak 26

II.LIZITAZIOA 28

11.-Parte hartzeko baldintzak 28

12.-Eskaintzen aurkezpena 29

13.-A gutunazala. Administrazio-dokumentazioa 32

III.GUTUN-AZALEN IREKIERA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA 33

14.-Eskaintzak errefusatzeko arrazoiak eta argibideak eskatzea 33

15.-Administrazio-dokumentuak irekitzea eta kalifikatzea 34

16.-Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideen bidez ebaluatu daitekeen eskaintzaren zatia irekitzea eta ebaluatzea 35

17.-Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitekeen eskaintzaren zatia irekitzea eta ebaluatzea 35

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

18.-Eskaintzak ebaluatzea 36

19.-Berdinketa hausteko irizpideak 36

IV.KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA 37

20.-Adjudikazio-proposamena 37

21.-Adjudikatu aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa 37

22.-Kontratua adjudikatzea eta adjudikazioa jakinaraztea 39

23.-Kontratua formalizatzea 39

V.KONTRATUA BETEARAZTEA 40

24.-Kontratuaren arduraduna 40

25.-Zerbitzuak gauzatzea 40

26.-Exekuzioari atxiki beharreko bitartekoak 41

27.-Betebeharrak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan 42

28.-Exekuzio baldintza bereziak 43

29.-Konfidentzialtasuna 45

30.-Egindako lanen jabetza eta jabetza industrial eta intelektualaren eskubideak 50

31.-Zigorrak 51

32.-Prezioa ordaintzea 52

33.-Kontratua aldatzea 53

34.-Azpikontratazioa 55

35.-Kontratua lagatzea eta aldi baterako enpresa-elkartearen osaera aldatzea 55

VI.KONTRATUA AZKENTZEA 58

36.-Betetzea: ematea, harrera eta likidatzea 58

37.-Berme-epea eta bermea itzultzea 60

38.-Kontratua suntsiaraztea 61

VII.INZIDENTZIAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA 61

39.-Inzidentziak 61

40.-Egintzak berrikusteko araubidea 61

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

KONTRATUAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- Definizioa:

Kontratuaren xedea izango da Haurreskolak Partzuergoak Datuak Babesteko Ordezkari baten zerbitzuak kontratatzea, Haurreskolak Partzuergoaren barruan datu pertsonalak babesteko araudia betetzearekin lotutako jarduerei euskarria eta laguntza emateko, bai eta Haurreskolak Partzuergoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduari egiten dizkion datu pertsonalen tratamenduen ezarpena kontrolatzeko ere.

Kontratu honen bidez bete beharreko beharra DBEOren 39. artikuluan dago zehaztuta;

-Tratamenduaren arduradunari edo eragileari eta tratamenduaz arduratzen diren langileei informazioa eta aholkuak ematea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren eta datuak babesteko gainerako araudiaren betebeharrei buruz.

-Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta datuak babesteko aplikatu beharreko gainerako araudia betetzen direla gainbegiratzea, bai eta arlo horretako tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen politikak ere, erantzukizunak esleitzea, tratamendu-eragiketetan parte hartzen duten langileen kontzientziazioa eta prestakuntza eta dagozkion auditoriak barne.

- Datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazioari buruz eskatzen den aholkularitza eskaintzea eta haren aplikazioa gainbegiratzea, DBEOren 35. artikuluaren arabera.

-Kontrol-agintaritzarekin lankidetzan aritzea. Kontrol-agintaritzaren harremanetarako gune gisa jardutea tratamenduari buruzko gaietan, DBEOren 36. artikulua aurretiaz kontsultatzea barne, eta, hala badagokio, beste edozein gairi buruzko kontsultak egitea.

Prestazio hauen garapena Preskripzio Teknikoen Pleguaren 2.artikuluan jasotzen da.

1.2.- Lotekako banaketa: Ez.

Datu sentikorren babesa denez, ez da egokia lotetan banatzea, zaildu egingo bailuke kontratuaren xedea behar bezala ematea, prestazio desberdinak gauzatzea ekarriko lukeelako. Hau da, zerbitzua egituratzen duten zereginak eta jarduerak modu independentean egiteak zaildu egingo luke zerbitzua behar bezala gauzatzea; izan ere, zati bakoitza lotuta dago gainerakoak egitearekin, eta guztiek helburu bakarra eta bera dute: datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea.

1.3.- CPV kodea:

Xedea	Kode nagusia
Nagusia	79411000-8 (Kudeaketako aholkularitza-zerbitzu orokorrak)

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: Ez.

1.5.- Traktua: Segidakoa.

1.6.- Beste ezaugarri espezifiko batzuk: Ez.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

2.- KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

- Administrazio-klausula zehatzen agiria.

- Baldintza tekniko partikularren agiria.

- Kontratua formalizatzeko agiria.

- Lan-programa, kontratuaren berariazko klausulen 17.1 klausulan hala adierazten denean.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 21.000 eurokoa da (BEZik gabe) + 4.410 euro BEZari dagozkionak. Ondorengo urteei egozten zaie:

- 2026 urtea, 7.000 euro + 1.470 euro BEZa = 8.470 euro.
- 2027 urtea, 7.000 euro + 1.470 euro BEZa = 8.470 euro.
- 2028 urtea, 7.000 euro + 1.470 euro BEZa = 8.470 euro.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartutako kostuak eta gastuak I.1 eranskinean adierazitakoak dira.

3.2.- Aurrekontu-apliazioa: 0000.421.244993.

3.3.- Aurretiko izapidetzea: Ez.

3.4.- Gastua kofinantzatua dago: Ez.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia 35.000 eurokoa da.

4.2.- Kalkulatzeko metodoa:

Zehazki, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, aurreko 48 hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa hartu da kontuan, gerora sor daitezkeen kopuru edo balio aldaketak kontsideratuz zuzenduta, kontratuaren iraupen osorako konputatuta, luzapenak barne.

Balio zenbatetsi hori kalkulatzeko, urtean egindako orduen aurreikuspen hauek hartu dira kontuan, gutxi gorabeherakoak eta orientagarriak. Ordu horiek lan-kostu zuzenari dagozkio:

100 ordu/urteko x 70€/orduko =7.000 euro/urteko

Aurrekoa gorabehera, Haurreskolak Partzuergoa ez da ordu kopuru jakin bat kontsumitzera behartzen, bere beharren mende dagoelako.

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Lizitazioko prezio unitarioak hauek dira: Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguko 5.puntuan adierazitakoak.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Prezio hauek gehienekoak dira, beraz, gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua:

- Ordainketa bakarra: Ez.

- Ordainketa partzialak: Bai.

Ordainketa hilabetero egingo da, dagokion faktura aurkeztu ondoren, eta horrek kontratazio-organoaren oniritzia beharko du.

Kontratuaren xede diren prestazioengatik ordaindu beharreko hileko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak eskainitako unitate-prezioa aplikatuko zaie hilabete horretan benetan emandako unitateei.

Kontratistak hileko faktura xehatua egin beharko du, zerbitzuak ematen diren hilabetea amaitu eta 15 egun naturaleko epean. Fakturarekin batera, dagokion hilean egindako lanen banakapena emango da, zeregin bakoitza zein egunetan egin den eta zeregin bakoitzean benetan egindako orduak zehaztuta.

Kontratuaren finantzaketari dagokionez, kontratazio hau aldez aurretik izapidetuko denez, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 9/2017 Legearen 117.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Haurreskolak Partzuergoak konpromisoa hartzen du urtero, kontratua gauzatzean eragina izango duten etorkizuneko ekitaldiei dagokienez, kontratu honetatik eratorritako obligazio ekonomikoei aurre egiteko aurrekontu-izendapen egokia ezartzeko, dagozkien aurrekontu-partiden kargura, eta kontratuaren esleipena baldintza etengarri baten mende geratuko da. Hots, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende.

Ez da bidezkoa izango Plegu honetan aurrikusitako kontratu-xedetik kanpo egindako lan edo zerbitzurik ordaintzea edo, hala badagokio, Haurreskolak Partzuergoak aldez aurretik eskatu ez duen kotzepturik ordaintzea.

5.3.- Prestalanak daude: Ez.

5.4.- Prezioak berrikustea: Ez. Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berrikustea, SPKLren 103.1 artikuluaren arabera.

5.5.- Prezioa aldatzeko klausula, epe- edo errendimendu-helburu jakin batzuk betetzearen edo ez betetzearen arabera: Ez.

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO EGITEKO EPEA. LUZAPENA

6.1.- Iraupen osoa edo burutzeko epe osoa edo epemuga: 2028ko abenduak 31ra arte.

6.2.- Hasiera data: 2026ko urtarrilak 1.

6.3.- Epe partzialak: Ez.

6.4.- Kontratuaren luzapena: Bai.

Luzapenaren iraupena: urteko luzapenak, gehienez ere beste bi urtez. Zehazki, 2030eko abenduaren 31ra arte.

7.- PUBLIZITATE GASTUAK

Ez daude.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

8.- BERMEAK

8.1.- Behin-behineko bermea: Ez.

8.2.- Behin betiko bermea: Bai, adjudikazio zenbatekoaren %5, BEZ gabe.

Kontratuaren prezioa unitateko prezioen arabera formulatzen denean, eratu beharreko behin betiko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arabera finkatuko da, BEZik gabe.

8.3.- Berme osagarria: Ez.

8.4.- Bermeak prezio atxikipenaren bidez eratu ahal izango dira: Ez.

8.5.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: Ez.

8.6.- Bermeak honen alde eratuko dira: HAURRESKOLAK PARTZUERGOA **IFZ:** P0100385D

9.- ASEGURUAK

Enpresa esleipendunak bere jarduera-eremuko legeriak eta APKPk ezarritako nahitaezko aseguruak izan behar ditu. Aseguru horren zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiari dagokiona izango da gutxienez.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dagokio.

11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluaren zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazio-iragarkian adierazten badira.

11.1.- Gizarte-izaerakoak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- *Lan-baldintzak betetzea:*

Enpresa kontratistak nahitaez bete beharko ditu lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratistak nahitaez bete beharko ditu dagokion lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak.

Enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpenen bidez edo, hala dagokionean, erakunde eskudunen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko du kontratua gauzatzean bete direla lanpostuak babesteari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

Betebehar hori ez betetzea kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zigorra ezartzea ekarriko duen kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da.

Era berean, kontratistak aldian-aldian jakinarazi beharko dio kontratuaren arduradunari lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapeni buruz, bai eta haren aurka jarri diren errekurtsoei eta horiei buruzko ebazpenei buruz ere. Informatzeko betebehar hori ez betetzea kontratuaren funtsezko baldintza bat ez betetzea izango da, eta kontratistak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, zehapena irmoa denean.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

11.1.2.- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako*:

Kontratistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu. 250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat duela, lege horretan aurreikusitako edukiarekin.

Enpresa esleipendunak bermatuko du ez dagoela ordainsari-diskriminaziorik emakumeen eta gizonen artean (42/2019 Ebazpena, apirilaren 9koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta kontratazio publikoan soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeko jarraibidea onartzen duen akordioa argitaratzea).

Halaber, igorritako dokumentu guztietan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatuko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonek ez dute giza duintasun gutxiago edo gehiago izango beren sexuaren arabera, ez eta sexu-objektu huts gisa ere; estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexu-, rol- eta genero-identitatearen dibertsifikazioa bultzatuko da.

11.1.3.- Besterik: Bai. Enpleguaren kalitatea eta oinarrizko lan-eskubideak.

Enpresa kontratista lan, gizarte segurantza, osasun eta laneko segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenen mende egongo da eta, bereziki, garatu beharreko prestazioek lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboa behar dutenean, kontratista dagokion lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren mende egongo da.

Enpresa esleipendunak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez edo, hala badagokio, erakunde eskudunen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko du kontratua gauzatzean aplikatzekoak zaizkion indarreko xedapenen ondoriozko betebeharrak betetzen dituela (lanpostuen babesari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoak).

Era berean, kontratistak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio, aldian-aldian, kontratua egikaritzean sortutako gertaerengatik lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezartzen zaion edozein zehapen, bai eta haren aurka jarritako errekurtso eta ebazpenak ere. Informatzeko betebehar hori ez betetzea kontratuaren funtsezko baldintza baten ez-betetzetzat hartuko da, eta kontratistak kontratua suntsiaraztea ekarriko du zehapena irmoa denean.

11.2.- Ingurumen arloko baldintzak: Ez.

11.3.- Baldintza etikoak: Ez.

11.4.- Hizkuntza arloko baldintzak: baldintza orokorretako 28.1 klausulan ezarritakoak.

11.5.- Datu babesari dagokionez: baldintza orokorretako 28.4 klausulan ezarritakoak.

11.6.- Berrikuntza arloan: Ez.

11.7.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketen arloan: baldintza orokorretako 28.3 klausulan ezarritakoak.

11.8.- Besterik: Ez.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTEAREN EDO LANAREN ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1.- Kontratuaren funtsezko kontratu-betebeharrak, SPKLren 211. artikuluko 1. paragrafoko f) letran aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko arrazoi direnak:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua gauzatzeko, II.2 eranskinean ("Baliabideak atxikitzeko konpromisoa") ageri den erantzukizunpeko adierazpenaren koadroan adierazitako bitartekoak atxikitzea, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta adjudikazio-prozeduran kaudimen teknikoa edo profesionala betetze aldera halakoen jabetza eta/edo eskuragarritasuna egiaztatu bada.

12.1.3.- Kontratistak berak egin behar ditu kolokazio- edo instalazio-zerbitzuak edo -lanak.

12.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontrataziorako adierazitako baldintzak, baldintza orokorren 34.1 klausularen arabera azpikontratistaren gaitasuna eta SPKLren 215.2 artikuluko c) letraren arabera larrialdi edo premia egoera determinatzen duen inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- Datu pertsonalen babesari dagokionez, kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduraen arduradunaren izenean, honako hauek egin beharko ditu:

12.1.5.1.- Plegu honetan jasotako helburua betetzea, horretarako laga baitira datuak.

12.1.5.2.- Zerbitzarien kokapena eta haiei lotutako zerbitzuak emateko lekua ez aldatzea, aurrez kontratazio-organoari jakinarazi gabe. Beraz, kontratuaren iraunaldian gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du tratamenduaren arduradunak.

12.1.5.3.- Kontratistak zerbitzariak edo haiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzean, eskaintzan adierazitako azpikontratazioa ez aldatzea, aurrez kontratazio-organoari jakinarazi gabe.

12.1.5.4.- Kontratazio publikoaren araudian arlo horrekin lotuta aurreikusita dauden guztiak.

12.1.6.- Besterik: Bai, ondorengoak.

12.1.6.1.- Kontratuaren berariazko klausulen 6.1 klausulan ezarritako exekuzio-epea edo epemuga betetzea.

12.1.6.2.- Kontratuaren berariazko klausulen 6.3 klausulan jasotako epe partzialak betetzea.

Kontratuko funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea **arau-hauste larria** da 71.2 c) SPKL-ren arabera.

12.2.- Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko beste betebehar batzuk:

12.2.1.- Ingurumenaren arloko betebeharrak: Ez.

12.2.2.- Gizarte edo lan arloko betebeharrak:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

12.2.2.2- Besterik: Ez.

13.- ZIGORRAK

a) Berandutzeagatik: SPKL-ren 193. artikuluan ezarritakoak.

b) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratuaren aurrekontuaren %10eraino (SPKL-ren 192.1 art.).

c) Kontratuan zehaztutako prestazioak ez betetzeagatik (SPKL-ren 192.2 art.): HAKPn edo deskripzio-agirian zehazten diren zigorrak ezarri edo suntsiaraztea aukeratuko da.

d) Azpikontratazioari ekiteko SPKLren 215. artikuluan aurreikusitako baldintzak edo baldintza-orri honetan azpikontratatzeko ezar daitekeen gehienezko muga berezia ez betetzeagatik: azpikontratuaren zenbatekoaren %50, gehienez.

e) Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak gaizki betetzeagatik: kontratuaren aurrekontuaren %10eraino (SPKL-ren 202.3 art).

13.1.- Baldintza orokorren 31.1 klausulan ezarritakoez gain, zigor gehigarriak ezarriko dira: Ez.

13.2.- Epeak betetzen berandutzeagatik SPKL-ko 193.3 eta 193.4 artikuluan xedatutakoez bestelako zigorren zenbatekoak ezartzen dira: Ez.

14.- AZPIKONTRATAZIOA

14.1.- Mugak ezartzen zaizkio azpikontratatzeko aukerari: Ez. Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratatzen den prestazioaren zati bat egitea, SPKLren 215. artikuluan ezarritakoaren arabera.

14.2.- Operadore ekonomikoek informazio eta/edo dokumentazio hau emateko duten betebeharra:

a) Azpikontratatzea aurreikusten duten prestazioaren/en zatia/k, zati horren edo azpikontratatzeko asmoa duen alderdi bakoitzaren ehunekoa eta azpikontratistaren/en izena/k. Informazio hori EKABen II. zatiko D atalean jaso beharko da.

b) Azpikontratatzea aurreikusten duten azpikontratista bakoitzaren DEUC (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta).

15.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera: Kontratua aldatu ahal izango da interes publikoko arrazoiengatik eta ezusteko arrazoiei aurre egiteko, SPKLren aurreikuspenekin bat etorriz eta aipatutako legearen 205. artikuluan aurreikusitako mugekin. Aldaketa horiek ezin izango dituzte inola ere kontratuaren funtsezko baldintzak ukitu.

Kontratuaren aldaketa SPKLan eta APKLEOn xedatutakoaren arabera arautuko da.

16.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Baldintza orokorretako 38. klausulan aurreikusitakoez gain, kontratua suntsiarazteko beste arrazoi batzuk ere ezartzen dira: Bai.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

SPKLren 211. artikuluan ezarritakoez gain, kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifikoak dira:

- Kontratuaren xede den prestazioa eta eskaintzan jasotako baldintzak behin eta berriz ez betetzea edo gaizki betetzea.

- Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea.

- Segurtasun- eta osasun-arloko araudia eta klausulak ez betetzea, kasu guztietan, APKLEOren 109. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

17.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

17.1.- Baldintza orokorren 25.2 klausulak ezarritako **lan-programa** aurkezteko obligazioa: Ez.

Lan-programa kontratu-agiria da: Ez.

17.2.- Kontratuak berekin dakar **datu pertsonalak tratatzea edo eskuratzea:** Bai.

Datu pertsonalak tratatu edo eskuratu behar badira, baldintza orokorren 29. klausulan ezarritakoa aplikatuko da.

17.3- SPKL-ko 75.4 artikuluan xedatutakoaren arabera prestazioaren zati bat edo lan jakin batzuk kontratistak berak egitea exijitzen da: Ez.

Aldi baterako enpresa-elkartea izanez gero, zati edo lan horiek partaide jakin batek egin beharko ditu: Ez.

17.4- Besterik: Ez.

II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

18.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

18.1.- Botere adjudikatzailea: Haurreskolak Partzuergoa.

18.2.- Organoen identifikazioa.

18.2.1.- Kontratazio-organoa: Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea.

18.2.2.- Kontratuaren arduraduna: Haurreskolak Partzuergoko gerentea.

18.2.3.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

18.2.4.- Kontratazio-zentrala: Kontratua adjudikatzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: ez.

18.2.5.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

Presidentea:

Titularra:	Ordeakoa(k):
Idoia Nogales Alberdi	Irantzu Benitez Galarza Oihane Setien Echenique

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Kide juridikoa:

Titularra:	
Begoña Barranco Lopez	

Kide ekonomikoa:

Titularra:	Ordeakoa(k):
Irantzu Benitez Galarza	Mireia Ibarra Fernandez

Kideak:

Titularra:	Ordeakoa(k):
Alicia Andrés Luis	Maialen Orbegozo Iturrale
Oihane Aisa Sorreluz	Oihane Setien Echenique
	Iratxe Badiola Lopez

Idazkaria:

Titularra:	Ordeakoa(k):
Irune Muguruza Mendarte	Idoia Nogales Alberdi Alicia Andrés Luis

18.2.6.- Adituen batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez.

18.3.- Adjudikazio-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea: HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO Ekonomia Kudeaketa zerbitzua.

18.4.- Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- Helbide elektronikoa: ekonomia@haurreskolak.eus

- Telefono zenbakia: 943821754

18.5.- Kontratatzailearen profilerako sarbidea, pleguak eta dokumentazio osagarria Interneten: Lizitazioa Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataforman eta kontratatzailearen profilean http://www.haurreskolak.eus argitaratuko da.

18.6.- Eskaintzak aurkezteko azken eguna eta ordua: 2025eko azaroak 26, 13:00ak baino lehen.

Epez kanpo aurkeztutako proposamenak ez dira inolaz ere onartuko.

18.7. Informazio argigarria eskuratzeko azken eguna: eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino 6 egun lehenagora arte.

Interesdunek egiten dituzten eta Haurreskolak Partzuergoak gainerako interesdunei beren eskaintza egiten lagun diezaieketela uste duen kontsulta guztien erantzunak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, jaso eta erantzun ahala.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

19.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

19.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: Ez.

19.2.- Izapidetza: Presakoa.

19.3.- Prozedura: Irekia.

19.4.- Sortatan banatzeari buruzko informazioa: Ez dagokio.

- Eskaintza integratzailea aurkezteko aukera: Ez.

19.5.- Izapideak egiteko bitartekoak: Ez elektronikoak.

Bitarteko elektronikoak ez diren beste bitarteko batzuk erabiltzea beharrezkotzat jo da, bitarteko elektronikoak erabiltzeko informatika-ekipo espezializatuak behar direlako, kontratazio-organo honek ez dituenak.

19.6.- Enkante elektronikoa: Ez.

19.7.- Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezietarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena: Ez.

19.8.- Erakunde jakin batzuentzat gordetako kontratua, gizarte-, kultura- edo osasun-izaerako zerbitzu-kontratua delako, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera: Ez.

20.- BITARTEKOEN KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

20.1.- Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra: bai, kontratuaren klausula espezifikoen 20.2 klausularen arabera.

20.2.- Kaudimena: operadore ekonomikoek honako kaudimen hau eduki behar dute:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena:

Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko bitartekoei dagokienez, negozioen bolumen globalari buruzko aitorpen bat aurkeztu beharko da, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagozkion jardueren esparruko negozio-bolumenari buruzkoa, gehienez ere enpresariaren jarduerak sortu edo hasi diren dataren arabera eskuragarri dauden azken bost ekitaldiei buruzkoa, 150.000 euro edo gehiagokoa (BEZa kanpo).

Enpresa sortu berrien kasuan, gutxienez finantza-erakunde baten aldeko txostena aurkeztu beharko du, lizitatzaileak lehiatzen duen kontratuari aurre egiteko behar adinako gaitasuna duela adieraziz, edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatiko kalteordain-aseguru bat duela egiaztatuz.

- Teknikoa edo profesionala:

Kaudimen teknikorako bitartekoei dagokienez, azken bost urteetan egindako kontratuaren objektuaren antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da. Kontratu honen CPV berean sartzen diren prestazioak hartuko dira antzeko kontratutzat.

Enpresa sortu berrien kasuan, Erantzukizun Profesionaleko asegurua izan beharko du.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Baldintza orokorren 11.4 klausulako bigarren paragrafoan xedatutakoari kontrajarri gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik egiaztatu behar ditu kaudimen-betekizun horiek, kontratuaren klausula espezifikoen 24.1 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

20.3.- Sailkapena: Ez dagokio, kontratuaren berariazko klausulen 20.1 klausulan adierazitakoarekin bat etorriz.

20.4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: Ez.

20.5.- Pertsona juridikoek prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak eman behar dituzte: Bai.

20.6.- Baliabideak nahitaez adskribatzea: Bai. Adierazpen horretan (II.2 eranskineko ereduaren arabera), lizitatzaileak konpromisoa hartzen du baldintza-orri honetan adierazitako gauzatze-baldintza bereziak betetzeko eta kontratua gauzatzeari bere produkzio-antolaketa esleitzeko, bai eta eskaintzan adierazitako baliabide materialak eta giza baliabideak ere.

21.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

21.1.- Adjudikazio-irizpide bakarra dago: Ez.

21.2.- Hainbat adjudikazio-irizpide daude: Bai.

21.2.1.- Balio-iritzi batean oinarrituta kuantifikatzen diren irizpideak: 45 puntu.

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATU BEHARREKOAK)	PUNTU MAXIMOAK	AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
1.-<u>Zerbitzuaren kalitatea eta funtzionaltasuna</u> - Jarraitu beharreko metodologia - Kontratuari atxikitako taldea (eskarmentua eta funtzioak)	**<u>20 puntu</u>** 10 puntu 10 puntu	Haurreskolak Partzuergoari eman beharreko aholkularitzaren funtzionaltasuna, zerbitzua eta moldagarritasuna deskribatzen duen memoria teknikoa.
2.- <u>Lan-programa:</u> - Lanaren antolaketa eta plangintza - Esleipendunaren jarduerak	**<u>10 puntu</u>** 5 puntu 5 puntu	Lan-programa deskribatzen duen memoria.
<u>3.-Euskararen erabilera harreman eta komunikazioetan:</u> - Administrazioarekin harremanak izango dituzten ºpertsonen euskara erabilera - Dokumentazio, ziurtagiri… euskararen ezagutza eta erabilera	**<u>10 puntu</u>** 5 puntu 5 puntu	Haurreskolak Partzuergoaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazioen ezaugarriei buruzko azalpen-memoria. Atal honetan ez da puntuatuko titulazioa, baizik eta Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzea.
<u>4.-Informazio sistema:</u> - Haurreskolak Partzuergoaren eta esleipendunaren arteko harremana gautzatzeko modua.	**<u>5 puntos</u>** 5 puntos	Esleipendunaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko informazio-sistema deskribatzen duen memoria.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

21.2.2.- Formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: 55 puntu.

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK)	PUNTU MAXIMOAK
1.- Aholkularitza zerbitzuen prezioa, BEZ gabe	20 puntu
2.- Erantzute denbora	15 puntu
3.- Lan-taldearen formakuntza	15 puntu
4.- Lan-taldearen euskara maila	5 puntu

Aplikatu beharreko formulak ondorengoa dira:

1.- Aholkularitza zerbitzuen prezioa, BEZ gabe. 20 puntu.

a. Haztapena: 20 puntu

b. Formula:

- 20 puntu emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari.
- Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, formula honen arabera.

$$\left[\frac{UPH}{BEP}\right] X\ 20$$

non: UPH Unitate Prezio Hoberena den

BEP Baloratu beharreko Eskaintzaren Prezioa den

2.- Erantzute-denbora. 15 puntu

Txostenak, kontsultak, zalantzak, dokumentuen berrikusketa eta antzeko eskaerei erantzuteko aurreikusitako denborari dagokio.

a. Haztapena: 15 puntu

b. Formula:

- 15 puntu emango dira erantzun-denbora laburrena duten enpresa lizitatzaileentzat (egunetan).
- Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, formula honen arabera.

$$\left[\frac{EDT}{BED}\right] X\ 15$$

non: EDT Erantzun-denbora Txikiena duen hornitzailearen Erantzun-denbora (egunetan)

BED Baloratu beharreko lizitatzailearen Erantzun-denbora (egunetan)

3.- Lan-taldearen formakuntza. 15 puntu.

Baldintza Teknikoen Agiriaren 8. atalean zehaztutako gutxieneko trebakuntzaren gaineko gehikuntza baloratuko da:

- 200 orduko edo hortik gorako Master edo Ikastaro bakoitzeko, eskatzen den Master edo Ikastaro bateko gutxienekotik aurrera = 2 puntu, eta gehienez 8 puntu.

$$Puntuazioa = 2\ x\ (Eskaintza\ kopurua - 1)$$

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- 100 ordu edo gehiago eta 200 ordu baino gutxiago dituen ikastaro bakoitzeko = puntu 1, gehienez 4 puntu.

- Erakunde ziurtatzaileak egiaztatutako DBO ziurtagiri bakoitzeko, DBO ziurtagiri bat eskatzen den gutxienekotik aurrera = puntu 1, eta gehienez 3 puntu.

$$Puntuazioa = 1\ x\ (Eskaintza\ kopurua - 1)$$

4.- Lan-taldearen euskara maila. 5 puntu.

Lantaldeko kideren batek euskarazko C1 edo goi-mailako titulazioa badu= 5 puntu

Titulazio hori duen inor ez badago, 0 puntu emango dira atal honetan.

21.3.- Eskaintza nabarmenki baxuegiak: SPKLren 149. artikulua eta APKLEO-ko 85 eta 86artikuluak aplikatuko dira.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. eta 86. artikuluetan adierazitako kasuetan, eskaintzek balio anormalki baxuak dituztela ulertuko da.

Eskaintzak balio anormaletan edo neurriz kanpokoetan badaude, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

Prezioa baloratzeko, balio anormalki baxuak dituzten eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan, aldez aurretik justifikatuta kontratazio-organoak onartu baditu.

22.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Ondorengoak ezartzen dira:

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean berdinketa gertatzen bada, honako irizpide sozial hauek hurrenkera honetan aplikatuz ebatziko da berdinketa; irizpide horiek eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari buruzkoak izango dira:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantilan aniztasun funtzionala duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, eta, berdintasun-kasuetan, plantilan aniztasun funtzionala duten langile finkoen kopururik handiena edo plantilan bazterkerian dauden langileen kopururik handiena lehenetsiko dira.

b) Aldi baterako kontratuen portzentaje txikiagoa lizitatzaile bakoitzaren plantilan.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantilan emakume langile gehiago egotea.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatzearen ondorioz berdinketa hausten ez bada.

Berdinketa gertatuz gero aurkeztu beharreko agiriak:

Irizpide horiek aplikatu ahal izateko, lizitatzaileek lan-kontratuen, Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien eta aipatutako gizarte-irizpideak egiaztatzen dituen beste edozein agiriren bidez egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio.

23.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren agiriak jarraian adierazten diren euskarri elektroniko eta gutunazaletan aurkeztuko dira.

23.1.-A GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-AGIRIAK.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Gutunazal honetan baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

EKAB agiriaren IV. atalari dagokionez, operadore ekonomikoak α **atala** bakarrik bete beharko du: bai.

23.2.- B GUTUN-AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

1.- Eskaintza ekonomikoa III.1 eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Ez dira onartuko eskaintza kontuan hartzeko Haurreskolak Partzuergoak funtsezkotzat jotzen dituenak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

Proposamena Word formatuan aurkeztu beharko da. Proposamenen bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, ezarritako eredua nabarmen aldatuko balitz edo lizitatzaileak onartzen badu bideraezin bihurtzen duen akatsa edo funtsa duela, kontratazio-organoak baztertu egingo du, eta ez da nahikoa arrazoi izango ereduaren hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea baztertzeko, baldin eta horrek ez badu ereduaren esanahia edo zentzua aldatzen.

Proposamenean, partida independente gisa, jasanarazi beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da.

2.- Agiri honen III.2 eranskinean ezarritako ereduaren arabera **formula bidez** (proposamen ekonomikoa izan ezik) **ebalua daitezkeen irizpideei buruzko agiriak**

23.3.- C GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZIA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK APLIKATUTA EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA.

Enpresa lizitatzaileek egindako balorazio subjektiboko proposamenei dagozkien dokumentuak gutun-azal independente batean sartuko dira, eta "C gutun-azal" gisa izendatuko dira.

"C" gutun-azalaren barruan, enpresa lizitatzaileak aurkibide bat izango du, aurkezten diren dokumentu guztiak identifikatzeko. Atal honetan eskatzen den hurrenkera zehatzean eta bereizita jarriko dira dokumentuak.

Lizitatzaileek egiten duten eskaintzak agiri hauek izan beharko ditu:

- Zerbitzuaren funtzionaltasuna eta moldagarritasuna deskribatzen duen memoria teknikoa.

- Lan-programa deskribatzen duen memoria.

- Haurreskolak Partzuergoaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazioen ezaugarriei buruzko azalpen-memoria.

- Esleipendunaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko informazio-sistema deskribatzen duen memoria.

Paperean eta euskarri informatikoan aurkeztu behar dute eskaintza lizitatzaileek, eta inolaz ere ez dute izan behar eskaintza ekonomikoaren dokumentu aipagarririk ez formularen arabera kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko alderdirik. Horiek sartzea lizitaziotik baztertzeko arrazoia izan daiteke.

23.4.- Aldaerak onartzen dira: Ez.

23.5.- Aurkezteko lekua:

- Haurreskolak Partzuergoko Erregistro Orokorra (Haurreskolak Partzuergoaren egoitza), ondorengo helbidean kokatzen dena: Otaola Hiribidea 29 (Jaizkibel Eraikina) lehen solairua, 20600 - Eibar.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Posta-bulegoak, betiere, agiri honetan ezarritako epean eta orduan. Kasu horretan, lizitatzaileak egiaztatu behar du zein egun eta ordutan jarri duen bidalketa posta-bulegoan, eta posta elektronikoz kontratazio mahaiari jakinarazi behar dio eskaintza bidali duela bidalketaren ziurtagiria helbide honetara bidaliz: ekonomia@haurreskolak.eus.

Bidalketaren iragarkia dokumentazioa aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen bidaliko da, eta bertan espediente-zenbakia, gutun-azal-zenbakia eta lizitatzailea identifikatu beharko dira. Iragarkiarekin batera, gordailuaren egiaztagiria aurkeztuko da, eguna eta ordua argi eta garbi adierazita.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, dokumentazioa ez da onartuko. Adierazitako datatik hamar (10) egun natural igaro eta dokumentazioa jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

24.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTEN DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 20.1 klausulan adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera, hala badagokio, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

24.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.2 klausulan jasotako ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa: bai, ondorengoak.

☑ Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

- Negozioen bolumen globalari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

☑ Kaudimen tekinkoa edo profesionala:

- Azken bost urteetan emandako zerbitzuen zerrenda.

Operadore ekonomiko sortu berrien kasuan (bost (5) urtetik beherako antzinatasuna), kontratuaren klausula espezifikoen 20.2 klausulan jasotako kaudimen-baldintzak egiaztatzeko, dokumentazio hau erantsi beharko dute:

☑ Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

- Gutxienez, erakunde finantzario baten aldeko txostena.

☑ Kaudimen tekinkoa edo profesionala:

- Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainetarako aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria.

24.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak badituztela egiaztatzeko dokumentazioa: ez dagokio.

25.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

25.1.- Pleguei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

25.1.1.- Eskaera egiteko azken eguna: eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino 12 egun lehenagora arte.

25.1.2.- Eskuratzeko azken eguna: eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino 6 egun lehenagora arte.

25.1.3.- Baldintza-agiriei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea: Bai.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

25.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusten da kontratua egiteari uko egiten zaionean eta botere adjudikatzaileak prozeduran atzera egiten duenean: Ez.

25.3.- Kontratua esleitzeko gehieneko epea, SPKL-ko 158.2 artikuluan ezarritakoa ez dena: Ez dagokio.

25.4.- Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitakoaz gain, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharreko agiriak: Ez.

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

26.- KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusitakoez gain: Ez dagokio.

27.- PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO GIZARTE- ETA INGURUMEN-ALDERDIEN ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI DAGOZKIEN ALDERDIEN TXERTAKETAREN JARRAIPEN-TAULA

Alderdiak:	**GIZARTE GAIAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK**				**INGURUMENEKOAK**	**HIZKUNTZAZKOAK**
	ZEHAZKI			BESTEAK		
	Laneratzea	Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Laneko arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren xedea						
Kaudimen-betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Esleitzeko irizpideak						Bai
Exekuzio baldintza bereziak		Bai	Bai			Bai

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

KLAUSULA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea kontratuaren berariazko klausulen 1. klausulan adierazitakoa da, eta baldintza tekniko zehatzen agirian definitzen da.

Xedea sortatan zatituta dagoenean, sorta bakoitzaren xedea kontratuaren berariazko klausulen 1.2 klausulan adierazten da, eta baldintza tekniko partikularren agirian definitzen da.

Kontratuaren berariazko klausulen 1.3 klausulan dago, hurrenez hurren, zerbitzua kokatzen den CPVa.

Kontratua segidako traktukoa denean eta xedea osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehatz-mehatz definitzen ez denean, botere adjudikatzaileak eskatutako prestazio-unitateak erabiliko ditu kontratistak.

2.- KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Dokumentu hauek kontratu-izaera dute:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiria (AKZA).

b) Preskripzio tekniko partikularren agiria (PTZA).

c) Kontratua formalizatzeko agiria.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

3.1.- Kontratua administratiboa da, eta arau eta dokumentu hauek bete behar ditu.

3.2.- Kontratu-agirietan aurreikusten ez denerako, hauek arautuko dute kontratua:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiriko klausulak.

b) Preskripzio tekniko partikularren agiriko klausulak.

c) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).

d) Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO), SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian.

e) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian.

f) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena (aurrerantzean, APKLEO).

g) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzkoa, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian.

h) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Agindua, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura eta jarduera jakin batzuen izapidetze telematikoari buruzkoa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

i) 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

j) 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioarena.

k) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

l) Kontratu-izaera duten dokumentuak.

m) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

n) 40/2018 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

o) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

p) 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.

q) 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.

r) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.

s) 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa.

t) 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzekoa.

u) Europar Batasunaren, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, aplikagarria baldin bada.

Horren ordez, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horien ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3.- Alderdiek berariaz bete behar dute kontratu-agirietan ezarritakoa.

Agiri horietan ezarritakoa ez ezagutzeak ez du kontratista hori betetzeko obligaziotik salbuesten, eta eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak bere klausula guztiak baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

4.- GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA: ZERGA-ARLOA, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUN BAT DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA, ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA, DATUEN BABESA ETA LEHIAREN DEFENTSA

Erakunde hauetan duzu indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

4.2.- Zerga-arloa: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko Foru Ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

4.4.- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa: Lan eta Enplegu arloan eskumena duen Saileko edo Sailetako dagokion Zuzendaritzak eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoak.

4.5.- Aniztasun funtzionala duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, eta aniztasun funtzionala duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.

4.6.- Datu-babesa: Datuak Babesteko Euskadiko Agentzia.

4.7.- Lehiaren defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZA ETA BALIO ZENBATETSIA

5.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren berariazko klausulen 3.1 klausulan ageri da, eta klausula horretan finkatutako urterokoetan eta sortetan banatuko da, hala badagokio.

5.2.- Kontratuaren berariazko klausulen 3.2 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan badago kontratutik eratorritako obligazioei erantzuteko behar den **kreditua**.

5.3.- Kontratuaren klausula berezien 3.3 klausularen arabera espedientea **aurretiaz tramitatzekoa** bada, kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da kontratuaren adjudikazioa egiteko.

5.4.- Balio zenbatetsia kontratuaren berariazko klausulen 4. klausulan ageri da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEZKO AURREKONTU MUGATZAILEA

6.1.- Honenbesteko prezio bidez zehazten den kontratua: prezioa honenbesteko finko baten bidez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta ezingo du inolaz ere gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe), kontratuaren berariazko klausulen 3.1 klausulan ageri dena.

6.2.- Prezio unitarioen bidez prezioa zehazten duen kontratua:

a) Objektua osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen denean: esleipendunak eskainitako unitateko prezioa unitate-kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da prezioa.

b) Objektua osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen ez denean:

1. Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

2. Kontratuaren gehienezko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren adinakoa izan daiteke, edo, esleipendunak lizitazioaren unitateko prezioak murriztea eskaini badu, kontratazio-organoak erabakitzen duen proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu honetan, aurrekontu honen gastu efektiboa botere adjudikatzailearen behar errealek baldintzatzen dute, eta ez dago behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera, ez eta osorik gastatzera ere.

6.3.- Prezioa zehazteko bi sistemak erabiltzen badira (bai altxaera eta bai aleko prezioak) prestazioaren zati desberdinetarako, kontratuaren berariazko klausulen 3.1 klausulan eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatutakoa beteko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

6.4.- Kontratuaren gehienezko prezio edo aurrekontu mugatzailea adjudikazio ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida independente gisa adieraziz eta, hala badagokio, urte anitzeko banaketa adieraziz.

6.5.- Kontratuaren prezioak aplikagarri diren zerga, tasa eta kanon guztiak barne hartzen ditu, baita kontratuaren baldintzak betetzetik eratorritako beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOEN BERRIKUSKETA

Kontratuaren berariazko klausulen 5.4 klausulan hala adierazita badago soilik berrikus daitezke prezioak, klausula horretan jasotako formula aplikatuta.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: kontratuaren baldintza espezifikoen 6.2 klausulan adierazitako egunean hasiko da kontratua gauzatzeko epea:

a) Eskaintzek ezin badute proposatu guztizko epea eta/edo epe partzialak murriztea: kontratuaren berariazko klausulen 6.3 klausulan adierazitakoa.

b) Eskaintzek epe osoaren edota epe partzialen murrizketa proposa badezakete: esleipendunak eskaini dituenak.

Epe horiek bakarrik luzatu ahal izango dira SPKL-ko 195.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak kontratuaren berariazko klausulen 6.1 eta 6.3 klausuletan zehaztutakoak dira, hurrenez hurren. Kontratuaren berariazko klausulen 6.2 klausulan adierazitako datan hasiko da kontratua.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: Kontratuaren berariazko klausulen 6.4 klausulan hala xedatzen denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du, eta hori nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, kontratua suntsiarazteko SPKL-ko 198.6 artikuluan jasotako arrazoia gertatzen denean izan ezik. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat derrigorrezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak gutxienez kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio.

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpenaren bidez erabakiko da, eta luzapena erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek biltzen ditu:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, kontratu-harremana luzatzeko beharra dakarten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea zehaztuz.

b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aldez aurreko fiskalizazioaren txostena, salbuetsita ez dagoenean.

e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletako batean jarri ahal izango da, eta SPKLren 106.3 artikulu horrek xedatutako moduetan gordailutu beharko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari behin-behineko bermea itzuliko zaio behin betiko bermea eratzen duenean, SPKLren 106.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko paragrafoan aurreikusitako formulen bidez eta prezioa atxikiz eman ahal izango dira, kontratuaren berariazko klausulen 8.4 klausularen arabera hori baimenduta dagoenean.

Bermeak HAURRESKOLAK PARTZUERGOAren alde eratuko dira (IFZ: P0100385D).

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkarte bat denean (aurrerantzean, ABEE), behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEE-ko partaide batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, baldin eta guztiek batera eskatzen den zenbateko osoa lortzen badute eta kide guztiei berme bateratu eta solidarioa ematen bazaie.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

10.1.- Euskadiko Kontratazio Publikoaren kontratatzailearen profilera sartzeko, esteka hau erabili behar da http://www.contratacion.euskadi.eus.

10.2.- Kontratatzailearen profilean honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

1. Hala badagokio, aurretiazko informazioaren iragarkia.

2. Lizitazio iragarkia.

3. Espedientea onartzeko ebazpena.

4. HAKP, proiektua eta dokumentazio osagarria.

5. Kontratuaren xedea, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

6. Kontratazioa egiteko beharra, kontratazioaren egokitasuna eta eraginkortasuna eta kontratuaren xedearekin duen lotura zuzena, argia eta proportzionala justifikatzeko memoria.

7. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio organoak sinatua.

8. Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultak egin badira, egindako kontsultei buruzko txosten arrazoitua, SPKLren 115artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. DEUC betetzeko xml fitxategia.

10. Kontratazio-organoan dagoen kontratazio-mahaiaren osaera eta bertako kideen kargua.

11. Balio-judizio baten mendeko esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeko kideak izendatzea, haien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoen 18.2.6 klausulan adierazi bada. Gainera, kideen kargua adierazi beharko da.

12. Kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.

13. Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak, APKLan eta/edo proiektuan aldaketa esanguratsuak sartzen dituztenak et,a epea luzatzearen ondorioz, eskaintzak aurkezteko epe berriak ezartzen dituztenak. Hala ere, SPKLko 122.1 eta 124. artikuluen arabera, jarduketen atzeraeragina adostuko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

14. Hala badagokio, administrazio-klausula zehatzen plegua eta/edo errakuntza materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko proiektua aldatzen dituen kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak.

15. Pleguei eta/edo gainerako dokumentazioei buruzko argibideak, bai erantzunak lotesleak badira, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1.3 klausularen arabera, bai lotesleak ez badira.

16. Esleipen-prozeduran parte hartu duten lizitatzaileen kopurua eta nortasuna.

17. Kontratazio-mahaiaren jendaurreko saioak egiteko datak eta tokiak eta, hala badagokio, baita saioak ikusteko erabili ahal izango den webgunea ere.

18. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda eta, azken kasu horretan, baztertzearen arrazoiak.

19. Kontratazio mahaiaren aktak.

20. Balio-judizio baten bidez kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideen eskaintza bakoitzaren balorazio-txostena.

21. Hala badagokio, SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen den anormaltasun-presuntzioan sartutako eskaintzei buruzko txostena edo txostenak.

22. Eskaintzei esleitutako puntuazioak, horiek aktetan jasotzen ez direnean edo horiek idatzi eta argitaratu arte.

23. Kontratua esleitzeko ebazpena.

24. Esleipendunaren nortasuna.

25. Esleipenaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

26. Kontratua formalizatzeko iragarkia eta kontratu-agiria.

27. Hala badagokio, kontratua egiteari buruzko datu guztiak ez argitaratzeko arrazoiak azaltzen dituen txostena, SPKLren 154.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.

28. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen duena.

29. Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozeduran atzera egitea erabakitzen duena.

30. Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozedura esleitu gabe uzten duena.

31. Errekurtsoak jartzea eta, hori dela-eta, adjudikazio-prozedura behin-behinean etetea.

32. Esleipen prozedura deuseztatzen duen ebazpena.

33. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzen duena.

34. Kontratua aldatzeko iragarkiak, kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua aldatzea erabakitzen duena, haren justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onartu aurretik eskatutako txosten guztiak.

35. Kontratuaren lagapena baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena.

36. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

10.3.- Interesdunek **kontsultak eta dokumentazio osagarriaren edo informazio osagarriaren eskaerak** egin ditzakete kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan agertzen diren helbide elektronikoen bidez. Idatziz egingo dira, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1.1 klausulan adierazitako informazio-eskaeraren azken egunera arte, eta kontratuaren klausula espezifikoen 25.1.2 klausulan adierazitako mugaegunera arte (egun hori barne) erantzun beharko zaie.

II.- LIZITAZIOA

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

11.1.- Kontratazio-prozeduran honako hauek har dezakete parte: jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten, interes-gatazkarik ez duten eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulan ezartzen diren gaikuntzak dituztenek (baldin eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "eskaintzak aurkezteko azken eguna" izan behar dutela).

Haurreskolak Partzuergoak kontratuak egin ditzake aldi baterako horretarako eratzen diren enpresaburuen elkarteekin, eta ez da beharrezkoa izango eskritura publikoan formalizatzea kontratua behin betiko esleitu arte. Enpresaburu horiek solidarioki behartuta daude kontratazio-organoaren aurrean, eta batasuneko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu behar dute, kontratu honen ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoak izango dituena; nolanahi ere, enpresek botere mankomunatuak emango dituzte zenbateko esanguratsuak kobratzeko eta ordaintzeko.

SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek, Europako Erkidegoko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek eta SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoa betetzen duten Erkidegokoak ez diren operadore ekonomikoek baino ezin dute parte hartu.

11.2.- Pertsona bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 23.4 klausulan aldaerak onartzen badira. Era berean, ezin izango du ABEEan beste proposamenik sinatu banaka egin badu, ezta ABEE batean baino gehiagotan agertu ere. Arau horiek urratuz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 19.7 klausulak kontratua gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat gordetzen badu edo enplegu babestuko programen esparruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek bakarrik parte hartu ahal izango dute (Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratze-enpresen araubidea arautzen duena).

11.4.- Gaitasunari, kaudimenari, enpresa- edo lanbide-gaikuntzari buruzko inguruabarrak (hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen direnak, salbu eta klausula horretan adierazten bada gaitasun hori izateko unea "kontratua formalizatu aurrekoa" dela) eta kontratatzeko debekurik eza eskaintzak aurkezteko azken egunean gertatu beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die ziurtagiri eta egiaztagiri guztiak edo batzuk prozeduraren edozein unetan aurkezteko, baldin eta beharrezkoa bada kontratua esleitu aurretik behar bezala garatzen dela bermatzeko. Halaber, aurkeztutako ziurtagiriei eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkie, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu.

11.5.- Eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako klausulak eta gainerako kontratu-agiriak, inolako erreserbarik eta salbuespenik gabe, eta baimena ematen diola kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko datu-base nazionalean jasotako datuak kontsultatzeko, betiere azken kasu horretan doan eskuratu badaiteke. Operadore ekonomikoek ez dute zertan aurkeztu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

12.- ESKAINTZEN AURKEZPENA

Datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa betez, prozedura honetan biltzen diren datuak fitxategi elektroniko batean sartuko dira, kontratu hau behar bezala esleitu eta gauzatzen dela bermatzeko. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako, aipatutako araudian xedatutakoa izan ezik. Lizitatzaileek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta Datu Pertsonalak Babesteko Legean jasotako gainerako eskubideak erabili ahal izango dituzte.

12.1.- Hizkuntza.

Agiriak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu beharko dira.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak.

Kontratuaren berariazko klausulen 19.5 klausulan kontratuaren adjudikazio-prozedura tramitatzeko bideak elektronikoak ez direla adierazten ez bada, eskaintzen aurkezpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN / CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI plataformaren bitartez.

Eskaintza aurkezteko epean jaso dela ulertuko da, baldin eta haren barruan eskualdatzen hasi eta arrakastaz amaitzen bada. Ondorio horietarako, ulertuko da eskaintzaren transmisioa epe barruan hasten dela baldin eta lizitatzailearen ordezkaritzak "eskaintza sinatu eta bidali" botoia sakatzen badu ezarritako epearen barruan, eta ulertuko da eskualdaketa arrakastaz amaitzen dela aurkeztutako eskaintza osatzen duten dokumentuak erregistro elektronikoan sartzen direnean.

12.2.2.- Baliabide ez-elektronikoak edo paperezkoak.

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Agiriak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutunazal bakoitzaren barruan, bertan sartutako agirien aurkibide zenbakitua sartuko da, eta gutunazal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek adieraziko dira:

1. Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo beste batzuk), kontratuaren berariazko klausulen 23. klausulan ezarritakoaren arabera.

2. Kontratuaren identifikazioa: espediente zenbakia eta xedea.

3. Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, sozietatearen izena eta IFZ jarriko dira; pertsona fisikoa bada, berriz, izen-abizenak eta NAN zenbakia edo agiri baliokidea..

4. Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NAN edo agiri baliokidea.

b) Gutun-azalaren barruan gutun-azal bakoitzerako agiri honetan zehazten diren agiriak baino ez dira sartu behar. Era berean, gutunazal bakoitzaren barruan orri bereizi batean gutunazalaren edukia idatziko da, zenbaki bidez adierazita. Gutunazalen barruan, agiriek inprimatuta egon behar dute, bi aldeko orrietan, grapatuta eta koadernatu gabe.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Agiriak euskaraz edo gaztelaniaz egongo dira idatzita, eta ondorengoak izan behar dute:

- Originalak
- Notario batek edo fede-emaile publiko batek legitimatutako kopiak
- Administrazio kontratugileak konpultsatutako kopiak

Ondorio horietarako, Haurreskolak Partzuergoko zerbitzu teknikoek proposamenak aurkezteko azken egunaren aurreko egun balioduneko 13:00ak arte konpultsatuko dituzte agiriak.

Atzerriko enpresek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dituzte dokumentu guztiak, modu ofizialean itzulita.

c) Eskaintzak paperean (kopia bat) eta beste euskarri iraunkor batean (CD-ROMa izan ezik) aurkeztu behar dira. Euskarri hori kontratazio-organoari lizitazioan zehar informazioa gordetzeko aukera ematen dion edozein euskarri izango da. Paperaz gain, euskarri iraunkortzat hartzen dira USB memoriak, memoria-txartelak eta ordenagailuko disko gogorrak. Paperezko eskaintzarekin batera, gutunazal bakoitzean sartu beharko da euskarri iraunkorra.

Paperean eta beste edozein euskarri iraunkorretan aurkeztutako eskaintzen artean kontraesanik badago, paperean jasotakoa gailenduko da, salbu eta, dokumentazioa aztertzetik eratorritako erreposizio-irizpideak erabiliz, kontratazio-organoak beste jarrera bat hartzen badu.

d) Dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten bada, lizitatzaileak egun berean jakinarazi beharko du bidalketa posta elektronikoz, kontratuaren klausula espezifikoen 18.4 klausulan agertzen den helbidera bidalita.

Posta elektroniko bidezko iragarkia baliozkoa izateko, argi eta garbi jasota egon behar da bidali eta jaso egin dela, bai eta datak eta komunikazioen eduki osoa ere, eta bidaltzailea eta hartzailea behar bezala identifikatuta egon behar dira. Kasu horretan, kopia inprimatua aterako da, eta espedienteari gehituko zaio.

Bidalketa-iragarkian, kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa adierazi behar da (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letrako 2) eta 3) ataletan ezarritako baldintzetan). Iragarkiarekin batera, Correos-eko bulegoak emandako zerga-frogagiria aurkeztuko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako egunetik hamar (10) egun natural igaro eta agiriak jaso ez badira, agiri horiek ez dira inolaz ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Esleipendunak izan ez diren eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari – espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz –, eta administrazio-bulegoetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Kontratua formalizatu zenetik zazpi (7) hilabete igaro eta errekurtsorik jarri ez bada, agiriak jasotzera joaten den pertsonaren nortasuna egiaztatu ondoren entregatuko dira agiriak, NANa edo dokumentu baliokidea erakutsiz. Epe hori igarota, agiriak ez badira hilabeteko (1) epean jasotzen, suntsitu egingo dira.

Prozedura bertan behera uzten denean edo kontratua egiteari uko egiten zaionean, jarduketa berberak egingo dira eta epe berberak aplikatuko dira.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Aurkeztutako dokumenturen bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek esplizituki izendatu behar dute —II.3 eranskina betez—, eta argi eta garbi adierazi behar dute, gaininprimatuta edo orri-bazterrean, konfidentzialtzat jotako dokumentuan bertan. Izendapena ez bada horrela egiten, dokumentua ez da konfidentzialtzat hartuko.

II.3 eranskin horretan, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik, eskaintzaren zer informazio eta alderdi konfidentzialtzat jotzen dituzten adierazteaz gain, lotura hori justifikatzen duten **arrazoi zehatzak azaldu** behar dituzte.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango. Eskaintza ekonomikoa konfidentzialtzat izendatzea egin gabekotzat joko da.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezingo da egin lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osoan, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzen duen dokumentazio osoan ere. Kasu horretan, edo adierazpen horri behar ez bezalako neurria ematen bazaio, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoituta, zer datu eta/edo dokumentu hartu behar diren kontuan. Era berean jardungo du kontratazio-organoak, baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egokirik eta behar bezala oinarriturik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu berariaz adierazi konfidentzialtzat inolako datu eta/edo dokumenturik, aurkeztutako datu eta/edo dokumentu bakar bat ere ez dela konfidentziala ulertuko da; hala ere, salbuespen gisa eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat hartuko du hala deklaratu gabeko informazioa, enpresa-interes legitimoak gordetzeko.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo dira konfidentzialtzat jo aurkeztu diren unean konfidentzialtzat jo ez diren datuak.

Esleipen-prozeduran zehar hasierako eskaintzakoak ez ziren agiriak aurkezten badira, agiri berri horiek osatzen dituzten datu edo dokumentuak konfidentzial gisa izendatu ahal izango dira, klausula honen aurreko paragrafoetan deskribatutako baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Botere adjudikatzaileak egiaztatu ahal izango du, bai adjudikazio-prozeduran, bai kontratua adjudikatu eta formalizatu ondoren, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla. Datuen faltsutasuna kontratua baliogabetzeko arrazoia izan daiteke. Arrazoi horregatik egindako deuseztasun-adierazpena operadore ekonomikoari egotz dakiokeen ez-betetzetzat hartuko da, eta horrek botere adjudikatzaileari ordaindu beharko dizkio hark jasandako kalte-galerak.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazpen eta komunikazioaren xede duren jarduerak.

12.5.1.1.- SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran zehaztutako esleipen-erabakia eta izapide-egintzak jakinaraziko dira.

12.5.1.2.- Jakinarazpentzat hartuko dira argitzeko eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko errekerimenduak, agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan jasota ez dauden bestelako izapide-egintzak.

12.5.2.- Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoen edo paperezkoen bidez aurkeztea.

Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoen edo paperezkoen bidez aurkeztea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako, II.6 eranskinean jasotako adierazpena aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

13.- A GUTUNAZALA. ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA

13.1.- Gutun-azal honetan jaso behar diren dokumentuen zerrenda:

13.1.1.- II.0 Eranskina.

13.1.2.- Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), behar bezala beteta. Helbide honetan beteko da: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang = es eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategia erabiliko da.

Halaber, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotako kasuetan egokiak diren EKAB agiriak aurkeztuko dira.

13.1.3.- Behin-behineko bermea, kontratuaren berariazko klausulen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.4.- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa, II.2 eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

13.1.5.-. Prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan hala eskatzen bada.

13.1.6.- Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzial izendatzea, II.3 eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

13.1.7.- II.4 eranskinean agertzen den ABEEa formalki eratzeko konpromisoa.

13.1.8.- Enpresa talde bereko hainbat operadore ekonomikok, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera, eskaintza aurkezten badute, II.5 eranskina bete beharko dute.

13.1.9.- Kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.5.2 klausulan xedatutakoaren ondorioetarako, II.6 eranskina bete beharko da.

13.1.10.- Europako Erkidegoko operadore ekonomikoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuak badira eta kontratua Espainian gauzatuko bada, kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen adierazpena erantsi behar dute, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginez, hala badagokio.

13.1.11.- Europar Batasunekoak ez diren operadore ekonomiko bat baino gehiago badira, SPKLren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Era berean, kontratua Espainian gauzatuko bada, edozein mailatako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diotela adierazten duena.

13.2.- ABEEen kasuan kaudimena metatzea:

ABEE baten kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala zehazteko, osatzen duten operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

13.3.- Arau espezifikoak Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) dagokionez

13.3.1.- Kontratua lotetan banatuta badago eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak lote batetik bestera aldatzen badira, lote bakoitzeko EKAB bana

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

aurkeztu beharko da. Hala ere, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak berdinak badira lote guztietarako, eta baldintzak operadore ekonomikoak eskaintza aurkezten duen lote kopuruaren arabera aldatzen badira, EKAB bakar bat beteko da lote guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratista:

13.3.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausularen a) letran hala adierazten bada, operadore ekonomikoek EKABen II. zatiaren D atala bete behar dute, datu hauek adieraziz:

- azpikontratatzeko asmoa duten **kontratuaren partea(k)**,
- azpikontratatu nahi duen alderdi horren edo bakoitzaren **ehunekoa**
- eta azpikontratistaren edo azpikontratisten **izena**.

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako b) letran hala adierazten bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatu beharreko pertsonaren EKAB agiria (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) erantsi beharko dute, edo, bat baino gehiago izanez gero, azpikontratatu beharreko pertsona adina EKAB, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko baliabideekin integratzea: operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duenean, bere EKABa aurkeztu behar du, kaudimena eta/edo baliabideak dituen erakunde bakoitzaren EKABarekin batera (pertsona edo operadore adina EKAB), sinatuta, eta II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta, eta, hala badagokio, IV. zatia.

13.3.4.- ABEE: hainbat operadore ekonomikok ABEEan parte hartu nahi badute, EKAB agiri bereizi bat aurkeztu beharko dute, parte hartzen duten operadore ekonomiko bakoitzeko II. zatitik IV. zatira eskatzen den informazioa jasoko duena.

13.3.5.- Sailkapena: kaudimena kontratuaren klausula espezifikoen 20.3 klausulan adierazitako sailkapenarekin ordezkatu nahi izanez gero, EKABen II. zatiko A atalean dagozkien taldeak, azpitaldeak eta kategoriak adierazi beharko dira, kontratazio-mahaiko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapen hori jasotzen duen ziurtagiria.

13.3.6.-Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatutakoaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazional hutsak hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako lanpostuen % 2ko erreserba-kuota ez betetzea, Aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluaren arabera.

- 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, berdintasun-plana izateko betebeharra ez betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III.- GUTUN-AZALEN IREKIERA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA

14.- ESKAINTZAK ERREFUSATZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA

14.1.- Kontratazio-mahaiak erabakiko eskaintzak ez onartzea:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan adierazitakoaz bestelako gutun-azal batean dokumenturen bat sartzea, eskaintzaren sekretua arriskuan jarriz.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, edukia ziurtasun osoz ezagutzea eragozten dutenak.

c) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko prezioak gainditzen dituztenak.

e) Agiri honetan jasotako eskaintza ekonomikoaren eredua nabarmen aldatzen bada.

f) Zenbatekoan akats nabarmena dutenak.

g) Akatsak edo funtsik ezak badituzte eta, ondorioz, lizitatzaileak onartu ezin badu.

h) APKPn edo LZPn ezarritako baldintzak edo betekizunak ez betetzea.

i) Irakurtzea edo edukira sartzea eragozten duten birusak izatea.

j) Kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, lizitazio-iragarkian ezarritako epea amaitu ondoren aurkezten bada.

k) Kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan adierazitako epea igaro ondoren jakinarazten bada.

l) Kontratuko berariazko klausulen 19.5 klausulak izapidetze-bitartekoak "ez-elektronikoak" direla ezartzen badu, eskaintza kanpoan identifikatu gabeko gutunazaletan (A, B, C) edo itxita ez dauden gutunazaletan aurkeztu bada.

14.2.- Kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak ulertzeko beharrezkoak diren **argibideak**, esleipen-proposamena egin aurretik. Inola ere ez da onartuko, argibideak aurkeztuz gero, lizitatzaileek eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzea.

14.3.- Kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) jakinaraziko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutzen dituen gertakari edo zantzu guztiak, baldin eta lehiaren defentsari buruzko legeria urratzen badute. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektibo zantzu oro, edo lizitatzaileen artean hitzartu edo nahita paraleloa den praktika, kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko helburua duena edo izan dezakeena, hori guztia SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) batean elkartuta lehiatzen diren enpresen arteko kolusio-zantzuak hautematen direnean, mahaiak edo kontratazio-organoak, SPKLren 69. artikuluaren arabera, elkartuta aurkezteko arrazoiak berariaz eta arrazoituta justifikatzeko eskatuko die enpresa horiei. Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) jakinarazi beharko zaizkio, enpresek egindako justifikazioa kontuan hartuta, kolusio-zantzu oinarridunak dituzten kasuak.

15.-ADMINISTRAZIO-DOKUMENTUAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, kontratazio mahaia bilduko da A gutunazalean aurkeztutako agiriak garaiz eta behar bezala kalifikatzeko.

Aztertutako dokumentazioa zuzena dela eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko nahikoa dela ondorioztatuko balu, lizitatzaile guztiak prozeduran onartzea erabakiko luke.

Azterturiko agirietan zuzendu daitezkeen akatsak edo hutsuneak daudela ikusten badu, hiru (3) egun balioduneko epea emango die agiri horiek aurkeztu edo aurkeztu ez dituzten lizitatzaileei, atzemandako akatsa edo omisioa zuzentzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Aurreko parrafoan aipatutako zuzenketa alde batera utzita, gaitasun eta kaudimen baldintzak egiaztatzearen ondorioetarako, lizitatzaileei aurkeztu dituzten ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango zaizkie edo beste osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango zaie.

Emandako epea igaro ondoren, kontratazio-mahaiak zuzenketa-fase horretan aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta lizitatzaileak onartzea edo baztertzea erabakiko du. Lizitatzaileren bat kanporatzea erabakitzen badu, kanporatzearen arrazoiak jasoko ditu akordioak.

15.2.- Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, azken kasu horretan, baztertzearen arrazoiak adieraziko dira.

16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

16.1- Irekitzea.

Ondoren, mahaiak **C gutun-azala** irekiko du. Gutun-azal horietan automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak jasotzen dira, eta, beraz, hautemate subjektibokoak, **onartuak izan diren lizitatzaileek aurkeztutakoak**.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Kontratazio-mahaiak erabaki ahal izango du dokumentazioa kontratua sustatu duen zerbitzuari bidaltzea, egiaztatu dezan eskaintzek ez dutela PPTPn ezarritako zehaztapenen aurkako edukirik, baloratu ditzan eta dagokion txostena egin dezan.

Zerbitzu sustatzaileak, ebaluazioa egitean, eskaintzaren bat pleguen aurkakoa dela egiaztatzen badu, edo beste gutun-azal batean aurkeztu beharreko dokumentuak edo datuak gehitzen baditu, egoera hori txostenean jasoko du. Formulatu ondoren, kontratazio-mahaira bidaliko du, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespenezko kasua: adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.2.6 klausulak adituen batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat ezartzen badu eskaintzaren zati hori ebaluatzeko, kontratazio-mahaiak dokumentazioa bidaliko dio izendatutako organoari, ebaluazioa egin eta txostena egin dezan. Formulatu ondoren, kontratazio-mahaira bidaliko du, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

17.1.- IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

- Izaera publikoa duen saioaren zatia hasi aurretik:
  - Kontratua sustatu duen zerbitzuak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak baloratu eta puntuatuko ditu.
  - Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) atzera botatzea erabakiko da.
- Izaera publikoa duen saioaren zatia hasi ondoren:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

• Bilkurara bertaratutakoei eskaintza bakoitzari esleitutako puntuazioen berri emango die eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen eta atzera botatzeko arrazoien berri emango du.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, irekiera egin aurretik, kontratazio-mahaiak adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak esleitutako puntuazioak jakinaraziko ditu, eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen berri emango du, baita horiek baztertzeko arrazoiak ere.

17.1.2.- Ez da balio-judizioa egitea eskatzen duen irizpiderik erabiltzen.

Irekiera egin aurretik, kontratazio-mahaiak lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak, aurretiazko jarduketak egin ondoren, uko egin ez zaien lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak irekiko ditu jendaurreko bilkuran, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA

Ondoren, kontratazio-mahaiak honako jarduera hauek egingo ditu beharrezko diren saioetan:

18.1.- Eskaintzak baldintza orokorren 14.1 klausulan ezarritako baztertzeko arrazoiren batean ote dauden egiaztatuko du, eta, hala badagokio, ukatzeko erabakia hartuko du.

18.2.- Egiaztatuko du onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan ezarritako mugak gainditzen dituzten, eta, horietakoren batek gainditzen baditu, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusitako jarduerak egingo ditu. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zer epetan izango den entzunaldia, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta; hiru (3) egun baliodunekoa izango da gutxienez, eta hamar (10) egun baliodunekoa gehienez.

Prozedura hori amaituta, kontratazio-organoari eskaintza(k) onartzea edo baztertzea proposatuko dio, eskaintza(k) bete ezin dela/direla uste badu.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza zein den zehaztuko du, esleipen-irizpide guztietan horietako bakoitzak lortutako puntuak batuz.

Kalkulua egiteko, ez dira kontuan hartuko baztertu diren eskaintzak.

Bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera lortu badute, eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileei eskatuko zaie, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean, kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan adierazi diren berdinketa hausteko irizpide espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko. Kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan irizpide espezifikorik ezarri ez bada, baldintza orokorren 19. klausulan jasotako berdinketa hausteko irizpideei jarraituko zaie.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan berdinketa hausteko irizpide espezifikorik aurreikusi ezean, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintzaren arteko berdinketa ebazteko, honako irizpide sozial hauek aplikatuko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagokionez, ordenan:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aniztasun funtzionala duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak. Berdintasuna egonez gero, plantillan aniztasun funtzionala duten langile finkoen kopuru handiena edo gizarteratze egoeran dauden langile kopuru handiena lehenetsiko da.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa lizitatzaile bakoitzaren plantillan.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume langile gehiago egotea.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatzearen ondorioz berdinketa hausten ez bada.

Irizpide horiek aplikatu ahal izateko, lizitatzaileek lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien bidez egiaztatu beharko dituzte irizpide horiek, bai eta zuzenbidean onartutako beste edozein dokumenturen bidez ere, baldin eta lehen aipatutako irizpide sozialak egiaztatzen badituzte.

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak puntuazioaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntuazio handienetik txikienera, eta, sailkapen horretan oinarrituta, dagokion esleipen-proposamena igorriko dio kontratazio-organoari.

Esleipenaren arrazoiari SPKLren 155.3 artikuluan jasotzen den konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaio.

Kontratazio-organoak ezin izango du prozedura hutsik utzi, baldintza-agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren bat dagoenean.

Esleipenaren ebazpena **lizitatzaileei jakinaraziko zaie** eta, aldi berean, www.haurreskolak.eus **webguneko kontratatzailearen profilean argitaratuko** da.

Jasotzaileak jakinarazpena hartu duela jasota uzteko aukera ematen duen edozein bide erabiliz egingo da jakinarazpena, eta, nolanahi ere, baztertutako lizitatzaileak edo baztertutako hautagaiak esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkezteko aukera emango duen beharrezko informazioa jaso beharko du. Zehazki, honako alderdi hauek adieraziko ditu:

- esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoien azalpen laburra.

- esleipendunaren izena, esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, eskaintza hori hautatu dela adierazten dutenak, gainerako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzei lehentasuna emanda.

- kontratua formalizatzeko epea, SPKLren 156. artikuluaren arabera.

21.- ADJUDIKATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

21.1.- Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio honako agiri hauek aurkez ditzala hamar (10) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita:

1. Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko:

1.1.- Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzaileek eskrituraren edo eraketa-agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sortze-aktaren bidez egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna. Estatutuetan edo aktan beren jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridiko motaren arabera.

1.2.- Espainiarrak ez diren lizitatzaileek, Europar Batasuneko estatu kideetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira,

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, SPKLren 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1.3.- Gainerako lizitatzaile atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute, SPKLren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Ahalordetzea: eskaintza sinatzen duen pertsonak ez badu bere izenean jarduten, edo lizitatzailea sozietate edo pertsona juridiko bat bada, sinatzen duen pertsonak ahalordetze nahikoa aurkeztu beharko du horretarako. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori behar bezala inskribatuta egongo da dagokion erregistro publikoan, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikagarria den araudiaren arabera, hura inskribatzea nahitaezkoa bada.

3. Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 20.1 klausularekin bat etorriz, gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk izatea nahitaezkoa denean, lizitatzaileak horiek egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du, salbu eta baldintza horien ordez sailkapena egin bada, eta SPKLren 159.6 artikuluaren bidez izapidetzen denean izan ezik; kasu horretan, lizitatzaileak salbuetsi egiten dira ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzetik, aipatutako artikuluaren b) apartatuaren arabera.

4. Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulan eskaintzak aurkezteko azken egunean gaikuntza eduki behar dela adierazi denean.

5. Lizitatzaileak kontratua gauzatzeko atxiki behar izan dituen baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri izatea: kontratuaren klausula espezifikoen 24.2 klausulan jasotako dokumentazioa.

6. Beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak izatea kontratuaren indarraldi osoan.

7. Kontratatzeko debekurik eza: SPKLren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duten agiriak.

8. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea: sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria eta Gizarte Segurantzak sektore publikoarekin kontratatzeko dituen betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria. Lizitatzaileak zergak hainbat lurraldetan ordaindu behar baditu, administrazio eskudun guztiek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

9. Bermea: behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria (salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan eskatu ez bada) eta, hala badagokio, berme osagarria.

10. Publizitate gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala adierazi bada, dagozkion publizitate-gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria.

11. Aurretik kopia soil bidez aurkeztutakoen artean eska daitezkeen jatorrizkoak, halakorik badago.

Ziurtagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan aipatutako erregistroetan, zerrendetan eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan adierazitako ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan ageri diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere datuetara sartzeak doakotasun-baldintza betetzen badu.

12. Legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duena, bere erantzukizunpean.

21.2.- Adierazitako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez badu, eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, jarduketa hauek egingo dira:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZik gabe) % 3ko zenbatekoa eskatzea, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, halakorik eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluaren a) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Hurrengo lizitatzailearen dokumentazio bera jasotzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA

22.1.- Kontratazio-organoak proposamen esleipendunak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunetan esleituko du kontratua.

22.2.- Esleipenaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, hala badagokio, balorazio-txostena, balorazio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabili diren eskaintzaren zatiena, eta anormalki baxuak diren eskaintzen justifikazioaren azterketa-txostena. Eskaintza horiek kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- Baldin eta, 44 artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz, kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati adjudikatzea erabaki behar badu, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari, baldintza orokorren 21 klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

22.4.- Nolanahi ere, esleipenaren ebazpena posta elektronikoz jakinaraziko zaie lizitatzaileei, eta, aldi berean, www.haurreskolak.eus-ko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

23.1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluan xedatutako moduan eta epeetan formalizatuko da, honako dokumentu hauek aurkeztu ondoren:

a) ABEEa eratzeko eskritura publikoa, esleipendunak ABEEan bilduta aurkeztu direnean.

b) Kontratuko klausula espezifikoen 9. klausulan berariaz eskatutako aseguru-kontratuen polizak, halakorik badago. Kontratu-klausula espezifikoen 18.1 klausulan adierazitako kontratista, azpikontratista eta botere adjudikatzailea sartu beharko dira asegurudun gisa. Gainera, ordainketaren frogagiriak aurkeztu behar dira.

c) Enpresa- edo lanbide-gaikuntza, kontratuaren berariazko klausulen 20.4 klausulan zehaztuta badago eta, gainera, klausula horretan adierazi bada gaikuntza hori kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela.

d) Kontratuaren berariazko klausulen 25.4 klausulan adierazitako dokumentazioa, hala badagokio.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, hura burutu eta gehienez ere hamabost (15) eguneko epean. Era berean, kontratua erregulazio harmonizatukoa denean, formalizazioari buruzko iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kontratua formalizatu eta gehienez ere hamar (10) eguneko epean.

23.3.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, kontratua ezin bada legezko epeetan formalizatu, honako jarduera hauek egin behar dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZik gabe) % 3ko zenbatekoa eskatzea, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik, behin behin betiko bermearen aurka ordainduko da, halakorik eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa eskatu eta aurkeztu ondoren.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren berariazko klausulen 18.2.1 klausulan adierazitako organoak kontratuaren jarraipena eta ohiko exekuzioa egiteko dituen funtzioak alde batera utzi gabe, lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea kontratuaren arduradunari dagokio, eta funtzio hauek beteko ditu:

a) Baldintza orokorren 25.2 klausulak aurreikusten duen lan-programaren onarpena proposatzea kontratazio-organoari.

b) Prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko beharrezko jarraibideak idatziz ematea.

c) Baldintza orokorren 32.1 klausulan ezartzen diren zerbitzuen ziurtagiriak onartzea.

d) Baldintza orokorren 32.2 klausulan adierazitakoak, prestazioa behar bezala gauzatu dela eta jaso dela egiaztatzeari dagokionez.

e) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratzea eta egiaztatzea, kontratazio-organoari gerta litezkeen ez-betetzeen berri ematea eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea proposatzea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera, kontratua gauzatzeari atxikitzera behartu zen giza baliabideen eta baliabide materialen aldaketa baimentzea.

g) Egin beharreko aldaketak proposatzea.

h) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko datuak kontratistari eskatzea.

i) Kontratistari dokumentazio osagarria eskatzea, egiaztatzeko kontratua indarrean dagoen bitartean badituela hirugarren erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak, kaudimena eta/edo kontratuaren adjudikazio-prozeduran parte hartzeko oinarri izan zituen bitartekoak.

j) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Exekuzioa berandutuz gero, egindako atzerapena kontratistari egotz dakiokeen ala ez zehazten duen txostena egitea.

l) ABEEko kideak lagatzeari eta aldatzeari buruzko baldintza orokorren 35. klausulan aurreikusitako txostenak egitea.

m) Kontratistari eskatzea, aktaren bidez, egiazta dezala datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli dituela, edo datu pertsonalak zituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela kontratua exekutatzen amaitu ondoren.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.2.2 klausulan agertzen den kontratuaren arduradunaren izendapena aldatzen bada, idatziz eta berehala jakinaraziko zaio kontratistari.

25.- ZERBITZUAK GAUZATZEA

25.1.- Kontratu-agiriei eta jarraibideei lotzea.

Zerbitzuak kontratuzko agirietan xedatutakoari, kontratistaren eskaintzari eta kontratuaren arduradunak kontratua gauzatzeko edo interpretatzeko idatziz emandako jarraibideei estu-estu lotuta burutuko dira.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

25.2.- Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 17.1 klausulan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Programa horretan, LZPko dagokion klausulan zehaztutako datuak eta informazioak jasoko dira.

Lan-programa AKPPn eta, hala badagokio, eskaintzan ezarritako epeetara egokituko da, eta kontratazio-organoak hamabost (15) egun balioduneko epean onartuko du.

25.3.- Baimenak.

Prestazioa gauzatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, publiko zein pribatuak, eskuratzea eta sortzen dituzten gastuak ordaintzea kontratistari dagokio.

25.4.- Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguruak kontratatu behar ditu, eta kontratuaren berariazko klausulen 9. klausulan ezartzen direnak kontratataturik eduki behar ditu.

25.5.- Lankidetza.

Kontratistak botere adjudikatzaileari eman behar dizkio, inolako kostu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesional guztiak, hala nola, azalpenak emateko bileretara joatea, jendeari informazioa ematea..., bai eta kontratuaren arduradunari prestazioa ematen den lekuetara sartzeko aukera ematea ere.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, bai eta kontratua gauzatzean egindako hutsegite, metodo desegoki edo ondorio okerrek botere adjudikatzailearentzat edo hirugarrenentzat izan ditzaketen ondorioena ere.

Kontratistak kalte-ordainak eman beharko ditu kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerengatik, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

25.7.- Kalte-ordaina obra-proiektuak egiteko kontratuetan.

Kontratista aholkulariari egotz dakizkiokeen akats edo ez-egiteen ondorioz, proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua benetako kostutik % 20 baino gehiago desbideratzen bada, hala goitik nola behetik, kontratista aholkulariak kalte-ordaina emango dio botere esleitzaileari, SPKLren 315. artikuluan aurreikusitako baremoaren arabera.

26.- EXEKUZIOARI ATXIKI BEHARREKO BITARTEKOAK

Kontratistak, kontratua gauzatzeko, bitartekoak izendatzeko konpromisoan (II.2. eranskina) adierazitako bitartekoak jarri behar ditu, bai eta kontratua kontratu-agirietan ezarritako baldintzen eta epeen arabera gauzatzeko behar direnak ere.

Aipatutako bitarteko materialak ordezkatzeko, aldez aurretik kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko zaio, hori egiaztatzen duten agirien bidez, proposatutako bitartekoak eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiazta dezan eta zazpi (7) egun balioduneko epean baimena eman dezan. Kontratuaren arduradunak bitarteko horrek baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, eta erabakiaren arrazoiak adieraziko dizkio. Kontratistak beste bitartekoren bat proposatu ahal izango du.

Adierazitako giza baliabideen ordezkapena klausula honetan xedatutakoaren arabera bakarrik egin ahal izango da. Nolanahi ere, ordezkapena dela-eta lan-ingurunera egokitzeko sor daitezkeen

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

eragozpenak konpondu egin beharko dira ordeztutako eta lanean hasten den pertsonaren gainjartze-aldien bidez, kostu gehigarririk gabe, behar den denboran.

Ordezkapena honako prozedura eta baldintza hauen arabera egingo da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ordezkapenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, hamabost (15) egun baliodun lehenago —aldi baterako lanerako ezintasun edo heriotza kasuetan izan ezik—, honako datu hauek adierazita:

• Ordeztu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezkapenaren arrazoia.

• Eskatutako baldintzak betetzen dituen hautagai baten proposamena, hori egiaztatzen duten agiriekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezkapena baimenduko du edo, hautagaiak baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia hartzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu ahal izango du.

b) Botere esleitzaileak eragindako aldaketa: kontratua behar bezala betetzeko ordezkapenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak azalduz. Kontratistak, hamabost (15) laneguneko epean, eskatutako baldintzak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori egiaztatzen duten agiriekin batera.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezkapena baimenduko du edo, hautagaiak baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia hartzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko atalean adierazitako eran.

Arau horiek berak aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko aurkeztutako bitartekoei dagokienez, bai eta kontratistak lizitazio-fasean dauden beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo bitartekoak erabili dituenean ere.

27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN

Kontratista behartuta dago lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapenak betetzera, eta bereziki:

27.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, kontratistak lan-ordenantzaren eta dagokion hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu.

27.2.- Kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu, langileen bizitzari, integritateari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko.

27.3.- Halaber, indarrean dagoen araudiak laneko arriskuen prebentzioaren alorrean ezartzen dituen betebeharrak beteko ditu, eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren antolaketa prebentiboaren modalitate bat hartu izana.

b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren arabera laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarriz eta aplikatuz. Eskakizun hori egiaztatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Segurtasun eta Osasun sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita izateagatik, baldin eta sistema horrek eskatutako neurriak betetzen direla ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Betebehar hori beste edozein frogabide egokiren bidez ere egiaztatu ahal izango da.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jarduera planifikatzea.

d) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen V. kapituluan aurreikusitako kontsulta eta parte-hartzea gauzatzeko modua arautzen duen idatzizko prozedura izatea, edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura bat izatea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan aurreikusitako diziplina-neurriak hartzea, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak behar dituzten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda izatea.

g) Kontratua gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek, bertakoek zein kanpokoek, lanean hasteko unean arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso izana, bai eta beren jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jaso izana ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, eta, hala badagokio, urriaren 18ko 32/2006 Legea eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretua), laneko arriskuak prebenitzeko planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza egokia eman dela.

h) Behar izanez gero, norbera babesteko ekipamenduak entregatu izanaren egiaztagiria izatea.

i) Jantoki- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak ematea, langile-kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatzeko eta aparteko orduak salbuespenez egiteko.

27.4.- Kontratistak kontratuaren gauzatzearen zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratei, eta botere adjudikatzaile kontratatzaileari entregatu beharko dizkio.

27.5.- Lanean ari direla langileei edozein eratako istripu edo kaltea gertatuz gero, indarrean dauden arauek xedatutakoa beteko du, bere erantzukizunpean, eta ez da inolaz ere iritsiko botere adjudikatzailera.

28.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasotakoak kontratistak eta azpikontratistek bete beharko dituzte.

28.1.- Hizkuntzakoak.

28.1.1.- Botere esleitzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean. Kontratua gauzatzeari dagokionez, "normalean euskara erabiltzea" honako hau dela ulertzen da:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek, kontratua gauzatzeko eginkizunetan ari direla administrazio kontratatzailera jotzen badute, hizkuntza horretan hitz egin behar dute hasieran. Kontratua gauzatzeari atxikita dagoen eta hizkuntza hori behar bezala ezagutzen ez duen langileren bati euskaraz zuzentzen bazaio botere adjudikatzailea, kontratua gauzatzearen ondorioz botere adjudikatzailearekin duen harremana euskaraz

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

garatu ahal izateko beharrezkoak diren euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten bitarteko edo langileak eman beharko ditu berehala kontratua gauzatzeaz arduratzen den enpresak.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, igorleak eta hartzaileak euskara aukeratzen badute salbu.

28.1.2.- Kontratuko objektua gauzatzeak herritarrei zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanak izatea dakarrenean, kontratistaren eta kontratua gauzatzean harremana izan behar duten erabiltzaileen edo pertsonen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan erabili beharreko hizkuntza erabiltzaileak edo hirugarrenak kasu bakoitzean aukeratzen duena izango da. Berariaz inolako aukerarik agertzen ez denean, kontratua gauzatzeaz arduratzen den kontratistak pertsona fisiko eta juridikoei zuzentzen dizkien mota guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, fakturak eta trafikoko beste dokumentu batzuk barne. Nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea eskatu ahal izango du.

Nolanahi ere, kontratistak behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak erabili beharko ditu, zerbitzuaren hartzaileekiko arreta, informazioa eta komunikazioa une oro euskaraz egin ahal izateko.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatzearen ondorioz, esleipendun berria lan-harremanetan subrogatu behar bada iraungitako kontratuari atxikitako langileen kolektiboarekin, eta kolektibo horrek ez badu hizkuntza-gaitasunik kontratu-klausulen pleguetan ezarritako baldintzak betetzeko, kontratista berriak subrogatutako langileen ordezkapenak bete beharko ditu, kasuan kasuko kontratuari eska dakiokeen euskararen ezagutza eta erabilera betetzen duten pertsonekin.

28.1.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko kontratuetan, horiek bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

28.2.- Gizarte-izaerakoak edo enpleguari buruzkoak:

28.2.1.- Lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea.
28.2.2.- Baldintza orokorren 27.3 klausulan xedatutakoa betetzea.
28.2.3.- Kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ezin da inola ere hura baino txikiagoa izan.

28.2.4.- Gardentasun instituzionala ematea kontratua gauzatzetik eratorritako datu guztiei.

28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea:

28.3.1.- Kontratuaren arduradunari, honek eskatzen dionean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda zehatza bidaltzea, haien partaidetza gauzatzen denean, eta haietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak, ordaintzeko epearekin zuzeneko lotura dutenak.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunari, hark eskatzen dionean, aurreko puntuan deskribatutako azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak bete izanaren egiaztagiria bidaltzea, prestazioa amaitu ondoren, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan. Era berean, SPKLren 216.4 artikuluan aurreikusitako bermea behin-behinean atxiki ahal izango da, hala badagokio.

28.3.3.- Azpikontratistei edo hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatuko dira, SPKLren 217. artikuluaren arabera. Herri-administrazioentzat eta gainerako erakunde publiko kontratatzaileentzat nahitaezkoak izango dira egiaztapen- eta zigor-jarduketak, obra-kontratuetan eta 5 milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren ehuneko 30 edo handiagoa duten zerbitzu-kontratuetan,

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

kontratista nagusiarekin kontratu bidez obra-zati edo -unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa hartu duten azpikontratistei egindako ordainketei dagokienez. Horretarako, kontratistak kontratuaren azpikontratistei egindako ordainketen ziurtagiria aurkeztu beharko du obra-ziurtagiri bakoitzean. Ziurtagiri horrek adierazi beharko du ordainketa SPKLren 216. artikuluan xedatutakoaren arabera egin dela.

28.3.4.- Baldin eta, azpikontratistak edo hornitzaileak kontratazio-organoari emandako ebazpen judizial edo arbitraje-ebazpen irmoaren bidez, kontratistak azpikontratista bati edo kontratua egikaritzeari lotutako hornitzaile bati ez diola ordaindu egiaztatzen bada, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeen barruan, kontratistari zigorrak ezarri ahal izango zaizkio. Baldin eta ordainketa atzeratzearen arrazoia ez bada azpikontratistak edo hornitzaileak prestazioa ematean bere gain hartutako kontratu-betebeharren bat ez betetzea betiere.

28.4.- Datu babesaren arloan:

Kontratua egikaritzeko kontratistari datuak laga behar bazaizkio, kontratistak datuen babesari buruzko Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko araudia bete beharko du.

28.5.- Ingurumenekoak:

Adjudikaziodunak une oro errespetatu beharko du arau-maila guztietan (Europako Erkidegokoa, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) aplikatu beharreko legeria, bai lanen hasieran indarrean dagoena, bai kontratuaren indarraldian aldarrika daitekeena eta aplikagarria dena. Beraz, kontratuan aurreikusitako lanak egitean eragina izan dezaketen ingurumen-baldintzak ezagutu beharko ditu. Era berean, bere baliabideen erabilera eraginkorragoa egingo du, ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena bilatuz.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari kalterik egin gabe, SPKLren 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak ezingo du zabaldu enpresek konfidentzialtzat jotzen duten informazioa.

Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak isilpekotzat jo daitezke, baldin eta dokumentu eta datu horiek hirugarrenei zabaltzea beren merkataritza-interes legitimoen aurkakoa izan badaiteke, sektoreko enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke edo Datu Pertsonalak Babesteko Legean ezarritako debekuen barruan badaude.

Kontratazio-organoak aintzat har ditzan, eskaintzako informazio eta dokumentuak isilpekotzat jotzeko eskatuko zaie enpresei, beharrezkoa denean.

Era berean, kontratistak eskuratzen duen informazio guztia isilpekoa izango da. Kontratistak eta kontratua egikaritzeko esleitutako pertsonek ezin dute beraientzat erabili, ez eta hirugarrenei eman ere, inolako daturik, kontratazio-organoaren baimenik gabe; eta eskura dituzten bitarteko guztiak jarri behar dituzte, edozein informazioren izaera konfidentzial eta erreserbatua mantentzeko.

Aurreko edozein pertsona fisikok edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren betebeharra urratuz gero, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galerak eskatuko dira, aplikatzekoa den araudiaren arabera. Betebehar horiek bete beharko dira, kontratu-harremana amaitu bada ere.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatzea eskatzen ez duten lanak egiten direnean, debekatuta dago datuetara sartzea, eta nahitaez isilpean gorde behar dira datu horiek.

29.1.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko edozein

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

informaziori eragiten dieten komunikazioen, kontsulten, interkonexioen eta transferentzien ondoriozko datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta ezabatzeko aukera ematen dutenak.

Kontratuak datu pertsonalen tratamendua edo enpresa kontratistak edo azpikontratistak izaera horretako datuak eskuratzea badakar, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta honako arau hauek beteko dira:

1. Kontratistak tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera baino ez ditu tratatuko datuak.

2. Tratatuko diren datu pertsonalak kontratuaren xedea gauzatzeko bakarrik erabiliko dira, eta ezin izango dira beste helburu baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei emango. Horretarako, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo haiekin sortutako fitxategiak ez jakinarazteko, ez transferitzeko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoaren bidez, ezta bistaratzeko ere, hirugarren bati.

4. Kontratistak eta kontratuaren xede den prestazioan parte hartzen duten langile guztiek Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan aipatzen den sekretu-betebeharra bete beharko dute. Betebehar horrek iraungo du kontratua iraungi ondoren ere, dela bete delako, dela suntsiarazi delako.

5. Kontratistak konpromisoa hartzen du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolamendukoak hartzeko, beharrezkoak baitira kontratu honen xede diren lanak egiteko tratatzen diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

a) Horri dagokionez, enpresak zerrenda bat eman beharko dio kontratazio-organoari, lanak hasi aurretik, datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien izen-abizenak, funtzioak eta lana non egingo duten adierazita. Kontratua gauzatzen ari den bitartean langileak lanean hasi behar badira edo baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak beste zerrenda bat aurkeztuko du, hori gertatzen denetik gehienez astebeteko epean. Enpresa esleipendunak eta harreman horietan agertzen diren langile guztiek konpromisoa hartu beharko dute, formalki eta idatziz, tratatutako datuen sekretu profesionala gordetzeko.

b) Enpresa esleipendunak segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu agiri teknikoetan zehazten diren tratamendu-zentroei, lokalei, ekipoei, sistemei eta programei dagokienez.

c) Kontratuaren xede den prestazioa amaitu ondoren, esleipendunak euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu. Suntsiketa edozein berreskuratze-prozesu aplikatzea ezinezkoa izateko moduan egingo da. Fitxategiak itzuli edo suntsitu izanaren ziurtagiria esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatutako akta baten bidez egingo da. Akta horretan egoera hori jasoko da.

6. Kontrataturiko erakundea datu pertsonalen lagapen-hartzailea bada, hirugarrenari aplikagarri zaion legezko betebehar edo gaikuntza baten arabera edo datuen babeserako araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera, bai Haurreskolak bai entitate kontratista tratamendu jardueren erantzunkidetzat hartuko dira.

Horrela, erakunde bakoitza arduratuko da DBEOren printzipioak betetzeaz, eta interesdunei tratamenduaren berri emateaz, klausula batzuen bidez; klausula horietan, datuak kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen arabera lagatzeko aukera adieraziko da.

Pertsona interesdunek eta legitimatuek eskubideak erabiltzeko eskaerak egiten badituzte, eta eskaera horrek erakunde lagapen-hartzailearen datuei eragiten badie, hala nola lagapenerako

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

adostasuna ezeztatzeari edo beste edozein motari, eskaera jaso duen erakundeak berehala jakinaraziko dizkio datuak erakunde lagapen-hartzaileari.

Alderdiek segurtasun-neurriak aplikatu beharko dituzte adingabeen datu-transmisioetan, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta alderdien arteko harreman juridikotik kanpoko hirugarrenei informazioa eskuratzea galarazteko ere.

29.2.- Hitzarmenak tratamenduaren arduradun gisa.

Klausula honen betebeharrek osatzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.3 artikuluak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean, DBEO) indargabetzen duenak, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren arteko tratamendu-enkarguaren kontratua deitzen duena, tratamenduaren eragile gisa jarduten duenean.

Betebehar horiek betetzeko egin beharreko prestazioak ez dira ordainduko agiri honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitakoa ez bada, eta zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute, eta, hala badagokio, kontratu honen aldi beretan luzatuko dira. Hala ere, kontratua amaitzean, sekretu-betebeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, kontratua gauzatzen ari diren pertsona guztientzat.

Kontratu honen xedea betetzeko, ez da beharrezkoa kontratistak tratamenduaren ardura duen organoaren ardurapeko beste datu pertsonalik eskuratzea.

Kontratua gauzatzean gorabeheraren bat gertatzen bada eta horren ondorioz tratamenduaren ardura duen organoaren ardurapeko datu pertsonalak ustekabean edo nahi gabe eskuratzen badira, kontratistak ahalik eta azkarren eman behar dio horren berri tratamenduaren ardura duen organoari, eta, bereziki, datuak babesteko ordezkariari, eta, gehienez ere, 72 orduko epean.

Kontratistak betebehar hauek betetzen dituela bermatu beharko du, gutxienez, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

a) Datu pertsonalak tratatzea, agiri honetan eta kontratua egikaritzeko aplika daitezkeen gainerako kontratu-dokumentuetan jasotako jarraibideen arabera, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean idatziz ematen dizkion gainerako dokumentuen arabera ere.

Kontratistak berehala berri emango dio tratamenduaren arduradunari, baldin eta, haren iritziz, jarraibide bat une bakoitzean aplikatzekoa den datu pertsonalak babesteko araudiaren kontrakoa bada.

b) Datu pertsonalak ez erabiltzea edo ez aplikatzea kontratuaren xedea ez den beste helburu baterako.

c) Datu pertsonalak segurtasun-irizpideen eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitako edukiaren arabera tratatzea, eta eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak behatzea eta hartzea.

d) Konfidentzialtasun osoa izatea kontratua egikaritzeko eskura dituen datu pertsonalei dagokienez, bai eta datu horiek tratatzearen ondoriozkoei dagokienez ere, edozein dela ere datuok lortzeko erabili den euskarria. Betebehar hori kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte har dezakeen pertsona orori zabaltzen zaio, eta kontratistaren betebeharra da bere mende dauden pertsonei isilpekotasun-betebehar horren berri ematea, bai eta betebehar horri eustearen berri ematea ere, zerbitzua amaitu edo lotura eten arren.

e) Plegu honen xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda eramatea, eta datu horiek konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

neurriak betetzeko konpromisoa berariaz eta idatziz hartzen dutela bermatzea. Neurri horien berri eman behar die behar bezala. Gainera, tratamenduaren arduradunaren esku utziko du egiaztagiri hori.

f) Datuak tratatzeko baimena duten pertsonek datu pertsonalak babesteari buruz behar duten prestakuntza bermatzea.

g) Datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea (lagatzea) edo zabaltzea, ezta gordetzeko ere, kasu bakoitzean tratamenduaren ardura duen organoaren aldez aurreko berariazko baimena izan ezean.

h) Datuak Babesteko ordezkaria izendatzea, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada eta borondatez egiten bada, eta haren izendapena tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bai eta kontratistak datu pertsonalak babesteko izendatutako pertsona fisikoaren edo fisikoen nortasuna eta harremanetarako datuak ere (tratamenduaren arduradunaren ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa betetzearen arduraduna/k, legezko, formazko eta segurtasuneko alderdietan.

i) Tratamenduaren ardura duen organoak hala erabakitzen badu, itzuli edo suntsitu egin beharko ditu eskuratutako datu pertsonalak, kontratistak tratamenduaren ondorioz sortutako beste datu batzuk eta datu horietako edozeinen euskarri eta dokumentuak, baldintza-orri honen xede den kontratu-prestazioa amaitutakoan. Ez da suntsituko, baldin eta lege batek edo Erkidegoko zuzenbideko arau batek kontserbatzea baimentzen edo eskatzen badu.

Hala ere, tratamenduaren eragileak datu pertsonalak gorde ahal izango ditu tratamenduaren ardura duen organoarekiko harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen denboran; kasu horretan, blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko ditu, eta epe horren amaieran modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu.

j) Datu pertsonalen tratamendua gauzatzea tratamendu-sistema eta -gailuetan, eskuzkoetan eta automatizatuetan. Ekipamendu hori tratamenduaren ardura duen organoaren kontrolpean egon daiteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolpean, edo tratamenduaren ardura duen organoak aldez aurretik eta idatziz berariaz baimendu dituen beste batzuen kontrolpean, eta kontratuaren xedea gauzatzeko esleitutako erabiltzaileek edo horien profilek soilik.

k) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoan edo araudi aplikagarriak segurtasun-esparru baliokidetzat jotzen duen beste esparru batean tratatzea, eta ez tratatzea gune horretatik kanpo, ez zuzenean, ez baimendutako edozein azpikontratistaren bidez, agiri honetan edo kontratuko gainerako dokumentuetan ezarritakoaren arabera, salbu eta horretara behartuta badago aplikatu beharreko Batasuneko edo estatu kideko zuzenbidearen arabera, edo tratamenduaren ardura duen organoak berariaz hala bideratzen badu.

Zuzenbide nazionala edo Europar Batasuneko arrazoiren bat dela-eta kontratista behartua badago datu pertsonalen nazioarteko transferentziaren bat egitera, idatziz jakinaraziko dio tratamenduaren ardura duen organoari lege-eskakizun hori, tratamendua egin baino nahiko denbora lehenago, eta bermatuko du tratamenduaren ardura duen organoari aplikagarri zaizkion lege-baldintza guztiak betetzen dituela, interes publikoko arrazoi garrantzitsuak direla-eta zuzenbide aplikagarriak hori debekatzen duenean izan ezik.

l) Tratamenduaren ardura duen organoari berehala eta arduraz jakinaraztea bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasunaren edozein urraketa, horren berri izanez gero, gehienez 72 orduko epean. Halaber, informazioa dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzizko informazio guztia emango dio, baita informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman izan duen edo izan dezakeen edozein akats ere, baldin eta horrek datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen badu, bai eta konfidentzialtasunaren balizko edozein urraketa ere, kontratua gauzatzean lortutako datuak eta informazioak hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz, baita konfidentzialtasuna galdu duten interesdunak zein izan diren zehaztuz ere; hori guztia, DBEOren 33. artikuluarekin bat etorriz.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

m) Tratamenduaren ardura duen organoari ahalik eta azkarren jakinaraztea interesdunak bere aurrean egikaritzen duen edozein eskubide, hala nola datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea, edo aplikatzekoa den araudian aitortutako beste eskubide batzuk, baldin eta banakako erabaki automatizatuen xede ez badira.

Komunikazioa berehala egin behar da, inola ere ez eskubidea egikaritzeko eskaera jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera. Eskubidea nork erabili duen modu frogagarrian identifikatuko da, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen agiriak eta bestelako informazioak erantsiko dira.

Ahal den guztietan, tratamenduaren organo arduradunari lagunduko dio, eskubidea baliatzen duen interesdunari bete eta erantzun diezaion.

n) Tratamenduaren ardura duen organoari laguntzea segurtasun-neurrien alorrean dituen betebeharrak betetzen, agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiatu direnak) komunikatzen eta/edo jakinarazten, eta datu pertsonalen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak eta agintaritza eskudunei horri buruzko aldez aurreko kontsultak egiten, tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaz arduratzen den organoaren esku jarriko du, organo horrek hala eskatzen dionean, agiri honetan eta kontratuko gainerako dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta tratamenduaren ardura duen organoak egindako ikuskapenetan lagunduko du, hala badagokio.

ñ) Tratamenduaren ardura duen organoaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat idatziz eramatea, formatu elektronikoan ere bai, DBEOren 30.5 artikuluan jasotako kasuetan. Erregistro horretan, gutxienez, DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak jaso beharko dira.

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen dituela frogatzen duten ebidentziak izatea, hala nola betetze-mailari buruzko aurretiko ziurtagiriak edo ikuskaritzen emaitzak, zeinak tratamenduaren ardura duen organoaren esku jarri beharko baititu hark eskatuz gero. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, tratamenduaren ardura duen organoaren esku jarriko du une bakoitzean egindako informazio, ziurtagiri eta ikuskaritza oro.

p) Datu-bilketa egiten denean, tratamenduaren ardura duen organoari egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa ematea. Datuak biltzen hasi aurretik, tratamenduaren ardura duen organoarekin adostu behar da informazioa nola idatzi eta emango den.

29.3.- Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpikarguak.

Kontratuak azpikontratazioa baimentzen duenean, datu pertsonalak eskuratu behar diren kontratuaren exekuzioa azpikontratatu nahi duen kontratistak bere asmoaren berri eman beharko dio tratamenduaren ardura duen organoari, eta horrek berekin dakartzan datu pertsonalen tratamenduak identifikatu beharko ditu, tratamenduaren ardura duen organoak erabaki dezan baimena ematen duen ala ez.

Nolanahi ere, hurrengo bi baldintzak bete beharko dira, tratamenduaren ardura duen organoak, hala erabakitzen badu, baimena eman dezan:

1. Azpikontratistaren datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarrean dagoen legeriarekin, agiri honetan jasotakoarekin eta tratamenduaren ardura duen organoaren jarraibideekin.

2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalen tratamendurako enkargu-kontratu bat formalizatzea, plegu honetan aurreikusitakoa baino baldintza murriztaileagoetan. Kontratu hori

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

tratamenduaren ardura duen organoaren esku utziko da, hark eskatuta, haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Kontratistak beste azpikontratista batzuk kontratatzean edo ordezkatzean aldaketaren bat egin nahi badu, aurreko moduan jokatu beharko du. Bestalde, tratamenduaz arduratzen den organoak kontuan izan beharko du bi baldintza horiek bete behar direla, hala badagokio, aldaketa horiek baimendu ahal izateko. Baimen hori ez dela ematen ulertuko da baldin eta kontratistak ez badu jasotzen 5 eguneko epean, tratamenduaren ardura duen organoak kontratistak emandako informazioa jasotzen duenetik aurrera zenbatuta.

30.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

30.1.- Lanen jabetza.

Edozein fasetan egindako lanak botere adjudikatzailearen jabetzakoak dira, eta, ondorioz, botere adjudikatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zati bat entregatzea, betiere behin betiko prestazio-programarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

Era berean, kontratistak prestazioa aldez aurretik jasotzeko eskatu ahal izango du, eta botere esleitzaileak izango du harrera hori onartzeko ahalmena.

30.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskuragarri jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere adjudikatzaile kontratatzaileari lagatzea.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, produkzioaren jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak eskuratzen ditu eta, bereziki, lortutako lan edo produktuaren erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko, eraldaketa eta ustiapen ekonomikoa izan dezaketen gainerako eskubideak. Jabetza intelektualaren eskubide horiek erregimen esklusiboan eskuratzen dira, sinatzen den datan dagoen edozein ustiapen eta/edo euskarriren gainean, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehienezko iraupenez, eta munduko herrialde guztietara hedatzen den lurralde-eremuarekin, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titular dira, lana edo azken produktua ez ezik, lan guztiak, zirriborroak, eskemak, aurretiazko dokumentuak, fluxu-diagramak eta, oro har, garapenerako jabetza intelektual eta industrialaren xede izan daitezkeen lan guzti-guztiak.

Kontratistak xehetasunez **jakinarazi behar** dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari kontratatutako lanaren emaitzan aurretik egin beharreko ekarpenen gainean hirugarrenek izan ditzaketen legezko erreserba eta eskubide guztiak. Kontratistaren betebeharra da eskubide eta erreserba horiei lotutako elementu guztien erabateko erabilgarritasuna bermatzea, eta horrek ekar ditzakeen kostuak bere gain hartzea.

Kontratistak erantzukizun osoa izango du, eta bere gain hartuko ditu eskubide horiei buruzko erreklamazio guztiak. Erreklamazioak aurkezteak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari ekar diezazkiokeen kalte eta galera guztiak ordaindu beharko dizkio kontratistak, baita ordezkapen- eta defentsa-gastuak ere.

Kontratuaren xedea **aplikazio informatikoak** egitea eta garatzea denean, aurreko paragrafoko hirugarrenen erreserba eta eskubide legalei buruzko informazioak nahitaez jaso beharko ditu erabilitako iturri guztien erreferentzia, bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak eta horien erabilera konpilazioan edo gauzatze-prozesuan egiten den.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Kontratistak edo lanean parte hartu duen edozein pertsonak ezin izango du lana beretzat erabili, ez eta hirugarren bati kontratatutako lanaren filmazioaren, testuen, marrazkien, argazkien edo berdinetsitakoen zatirik eman ere; era berean, ezingo du edukia osorik edo zati batean argitaratu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berariazko eta idatzizko baimenik gabe. Era berean, ez dira jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubiderik erregistratzen saiatuko, eskubide horiek kontratutik erator daitezkeenen berdinak edo antzekoak badira, eta betebehar horrek iraungo du eskubide horiek amaitu arte. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lankidetzan aritzeko eta eskatzen zaion dokumentazio guztia sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak klausula honetan aipatutako eskubide guztiak eskura ditzan eta/edo babes ditzan.

31.- ZIGORRAK

Kontratistari legez dagozkion akatsak konpontzeko eta kalte-galerengatik kalte-ordainak emateko betebeharra alde batera utzi gabe, eta SPKLan edo baldintza orokorren 38. klausulan aurreikusitako kontratua suntsiarazteko aukera alde batera utzi gabe, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari, arrazoi hauengatik:

31.1.- Kausak eta zenbatekoak.

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan adierazitako ez-betetzeak: klausula horretan adierazitako zenbatekoak.

b) Epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan adierazitako zenbatekoak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan beste batzuk adierazten badira.

c) Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea: kontratuaren gehienezko aurrekontu mugatzailearen prezioaren **%1 eta %10 bitartean**, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, behin eta berriz ez betetzearen arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatutakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren **% 50** gehienez.

e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoa ez betetzea: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,01** izango da. Kontratuaren prezioaren **% 5era** irits daiteke, eta hilero errepikatu ahal izango da, ez ordaintzeak irauten duen bitartean, prezio horren **% 50eko** muga bateratura iritsi arte.

f) Balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren, eskaintzaren bidez hartutako konpromisoak ez betetzea,: kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen **% 1 eta % 10 artean**, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, behin eta berriro egitearen arabera.

g) Sekretu profesionalaren betebeharra ez betetzea edo datuak babesteko araudia ez betetzea: kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, behin eta berriz egitea.

h) Kontratuaren berariazko klausulen 12.2 klausulan adierazitako ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak ez betetzea (ondorio hauetarako, 12.2.2.1 klausularen ez-betetzetzat hartuko da soldaten ordainketan behin eta berriz ez-betetzea edo atzerapenak izatea, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzea, larria eta dolozkoa denean): prezioaren edo kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,5 eta % 10 bitartean**, ez-betetzearen larritasunaren eta errepikatzearen arabera.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

i) Laneko segurtasun- eta osasun-plana aurkezteko epea ez betetzea, hala eskatzen denean: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa euro bat izango da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euroko.

j) 130. artikuluan aurreikusitako subrogazioa jakinarazteko betebeharra ez betetzea: **0,60 euro 1.000 euroko**, BEZik gabe, kontratuaren preziotik, atzeratutako egun bakoitzeko, **komunikazio-betebeharra betetzeko errekerimenduan emandako epea amaitzen den egunetik aurrera**, 13. klausula espezifikoan beste bat xedatu ezean.

OHARRA: zigor hau proposatzen da, baina ez-betetzearen larritasunaren arabera eta, hala badagokio, hura errepikatzearen arabera, beste zigor bat ezarri ahal izango da.

31.2.- Prozedura.

Zigorrak ezartzea kontratazio-organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta hori erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek biltzen ditu:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, hautemandako ez-betetzeak identifikatzeko eta zigorraren zenbatekoa proposatzeko.

b) Kontratistari entzunaldia emango zaio, bost (5) egun balioduneko epean, bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Baldintza orokorren 28.3 klausulan aurreikusitako kasuetan, horri buruzko txostena eskatu ahal izango zaio zuzendaritza fakultatiboari eta/edo kontratuaren arduradunari.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Zenbatekoak biltzea, ordainketa oso edo partzial gisa kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik edo, hala badagokio, eratutako bermetik kenduz, aipatutako ordainketetatik kendu ezin direnean.

32.- PREZIOA ORDAINTZEA

Prezioaren ordainketa baldintza hauen arabera egingo da:

32.1.- Hornitutako ondasunen ziurtagiria.

32.1.1.- Kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 18.3 klausulan adierazitako erregistroan aurkeztu beharko du/ditu emandako ondasunaren/ondasunen edo errentan hartutako ondasun/ondasunen ziurtagiria/k, datu hauek jasota:

a) Espedientearen kodea.

b) Kontratistaren izena edo izen soziala eta IFZ.

c) Hornitutako ondasunaren edo ondasunen (entregatuak edo errentatuak) zerrenda baloratua – hitzartutako prezioen arabera (BEZik gabe) –.

d) Azpikontratistek gauzatutako prestazioen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, ordainketa-epearekin zuzenean lotutako baldintzak.

e) Entregatutako edo errentatutako ondasunei dagokien aldia (ziurtagiria partziala bada).

32.1.2.- Epe eta baldintzak.

Aurkezpena honako epe eta baldintza hauetan egingo da:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa bakarra ezartzen badu: ziurtagiri osoa aurkeztuko da, kontratua exekutatzen amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan.

b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa partzialak ezartzen baditu: ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira, klausula horretan ezarritako aldizkako epemuga bakoitzaren ondorengo hogeita hamar (30) egunen barruan.

32.2.- Adostasuna eta faktura-erregistroa.

Kontratuaren arduradunak hornitutako ondasunen ziurtagiria onetsi behar du, erregistroa egin eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan, eta onarpen-agiriaren kopia bidali behar dio kontratistari egun horretan bertan, indarrean dagoen legeriaren arabera dagokion bidea erabiliz.

Onarpen-agiriaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztuko du kontratuaren klausula espezifikoen 18.3 klausulan adierazitako erregistroan, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, ondasunak hornitzen direnetik hogeita hamar (30) eguneko epean.

32.3.- Abonua.

Botere adjudikatzaileak hornitutako ondasunen ziurtagiria onartu eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du prezioa. Ordaintzeko betebeharra betetzen atzeratzen bada, aurreko lerrokadan adierazitako epea betetzen denetik aurrera berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak hornitutako ondasunen ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu beharko ditu kontratuaren klausula espezifikoen 18.3 klausulan adierazitako erregistroan. Kontratistak hogeita hamar (30) eguneko epea betetzen ez badu faktura administrazio-erregistro horretan aurkezteko, interesen sortzapena ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte faktura dagokion erregistroan aurkezten denetik, eta botere adjudikatzaileak ez du adostasunik onartu, hala badagokio, eta ez du dagokion ordainketarik egingo.

Kontratistak elektronikoki egin eta igorri behar ditu fakturak, Euskal Autonomia Erkidegoko fakturazio elektronikoko zerbitzuaren bidez. Fakturak elektronikoki egitea eta igortzea ez da nahitaezkoa fakturaren zenbatekoa, BEZa barne, 5.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa denean edo faktura horien hartzaileak Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoaren Zerbitzua eta Fakturen Kontabilitate Erregistroa arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko abenduaren 26ko Aginduarekin bat etorriz. Nolanahi ere, faktura elektronikoa egin eta igorri behar dute 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzeari eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren erakunde autonomoei eta partzuergoei emandako zerbitzuengatik eta emandako ondasunengatik.

33.- KONTRATUA ALDATZEA

33.1.- Baldintzak.

Kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoak, interes publikoko arrazoiak direla eta, kontratua aldatu ahal izango du, betiere klausula espezifikoen 15. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan soilik.

Interes publikoko arrazoitzat hartzen dira dagokion aurrekontu-ekitaldian zehar aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzeko xedea dutenak.

33.2.- Prozedura.

33.2.1.- Aldaketa erabakitzeko prozedurak, nolanahi ere, jarduketa hauek biltzen ditu:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, kontratuaren xedea zenbat unitatek osatzen duten zehatz-mehatz zehaztuta:

1. Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak, irismen kualitatiboa eta kuantitatiboa, inguruabarrak eta lehia horren egiaztapen objektiboa zehazten dituena.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedura hastea erabakiz.

3. Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.

4. Proiektua edo zehaztapen teknikoak idatzi dituenari entzutea, baldin eta kontratazio-organoaz kanpoko hirugarren batek prestatu baditu hiru (3) egun balioduneko epean.

5. Txosten juridikoa.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

7. Aldaketa-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, onartu aurretik eskatutako txosten guztiekin batera.

8. Aldaketaren iragarkia EBAOn argitaratzea, baldin eta kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotakoetako bat bada), eta aldaketak SPKLren 205.2 artikuluaren a) eta b) letretako kasuetako bati erantzuten badio.

b) Unitate-prezioaren araberako segidako traktuko kontratuak, kontratua egitean prestazio-unitateen guztizko kopurua zehaztasunez zehaztu ez bada:

1. Kontratuaren arduradunaren txostena. Txosten horretan, hasieran zenbatetsitakoak baino behar erreal handiagoak daudela justifikatu behar da, eta haien eragin ekonomikoa zehaztu.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedura hastea erabakiz.

3. Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia ematea.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

6. Aldaketa-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, onartu aurretik eskatutako txosten guztiekin batera.

33.2.2.- Ondoren zehazten diren kasuetan, gainera, honako jarduera hauek egin behar dira:

1. Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak bermea birdoitu beharko du, ebazpena jakinarazten denetik hamabost (15) egun naturaleko epean.

2. Kontrol ekonomiko-fiskaleko aurretiazko fiskalizazio-txostena egitea, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duenean.

3. Gobernu Kontseiluak aldaketa baimentzea, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Finantza-errentamenduaren sistemaren bidez edo erosteko aukera ematen duen errentamendu-sistemaren bidez ordaintzea hitzartzen den kontratua bada, eta urtekoen kopurua lau (4) urtetik gorakoa bada.

b) Aldaketa suntsiarazteko arrazoia izatea.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

4. Aldaketa APKPan aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena igorriko da, kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada eta aldaketak % 20 baino gehiagoko aldaketa badakar. Beste aldaketa batzuk egitea erabakitzen bada, horiek guztiak kontuan hartuta kalkulatuko da ehuneko-aldaketa.

5. Kontratuko klausula espezifikoen 9. klausulan aseguru espezifikoren bat edo batzuk eskatzen badira, baldintza batzuekin, eta kontratua aldatu ondoren baldintza horiek eta/edo kontratuaren iraupena edo gauzatzeko epea aldatzen badira, kontratistak aseguru horien poliza berri bat kontratatu beharko du, aurrekoaren antzeko estaldura eta kapitalekin, edo lehendik dagoena/daudenak luzatu, aldatu beharreko ezaugarriak estal ditzan.

33.2.3.- Nolanahi ere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

33.3.- Ondorioak.

Klausula honetan xedatutakoaren arabera adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. AKPPn aurreikusi gabeko aldaketen kasuan, SPKLren 206. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

34.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu ahal izango du, aipatutako klausulan ezarritako mugen barruan eta klausula honetan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak kontratuaren zati bat egiteko hirugarren batzuk kontratatzen baditu, bere gain hartuko du botere esleitzailearen aurrean kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa, baldintza-orri honi eta kontratuaren baldintzei jarraiki, baita gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea ere.

34.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Baldin eta kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den moduan bete badu eta azpikontratazioa bertan zehatz-mehatz adierazten diren baldintzetan egin nahi badu: honi buruzko informazioa bidali beharko dio kontratuaren arduradunari, azpikontratista lanak gauzatzen hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago gutxienez.

b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten den moduan bete badu, baina azpikontratazioa EKABen adierazitakoez bestelako baldintzetan egin nahi badu, edo atal hori bete ez badu: honi buruzko informazioa bidali beharko dio kontratuaren arduradunari, azpikontratista lanak egiten hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago gutxienez.

34.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Kontratistak frogatu beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin hitzartutako ordainketa-baldintzak betetzen dituela, zeinak SPKLren 216. artikuluak ezartzen dituen mugak errespetatu behar baititu, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoaren arabera, eta, gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 32.1.1 klausulako d) letran xedatutakoaren arabera.

35.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEAREN OSAERA ALDATZEA

35.1.- Kontratua lagatzea.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

35.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluaren kontratistaren ondorengotza-kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluaren ABEEaren osaera aldatzeko kasuei kalterik egin gabe, kontratua honako kasu hauetan laga ahal izango da:

1. Kontratista kaudimengabezia-egoeran dagoenean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 2.2 artikuluaren arabera, eta oraindik konkurtso-deklarazioa eskatu ez duenean, betiere beste edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez bada.

2. Kontratista konkurtsoan deklaratu denean, baita likidazio-fasea ireki denean ere, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi zaionean birfinantzaketa-akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko negoziazioak hasi dituela, konkurtso-legerian aurreikusitako baldintzetan.

3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu aurretik erretiroa hartzeko borondatea adierazi duenean.

35.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak kontratuaren arduradunari idatzi bat bidaliko dio lagapena baimentzeko eskatuz. Eskabide horri honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- Kontratua lagatzea eskatzeko aukera ematen duen inguruabarra egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluaren c) letran jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedura hastea erabakitzen duena.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, gutxienez kontratuaren zenbatekoaren %20 gauzatu izanaren baldintza bete behar den ala ez adierazten duena, eta, bete bada, baldintza hori betetzen den ala ez. Halaber, adierazi beharko du SPKLren 214. artikuluaren 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak lagapena formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena baimentzeko eta kontratistari jakinarazteko.

7. Kontratatzailearen profilean lagatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea.

8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailatzea. Lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko lagapen-hartzailearena formalki eratuta egon arte.

35.1.3.- Baldintzak.

35.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimendu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. atalean jasotako baldintzak betetzea.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez direnean.

3. Lagapenaren ondorioz merkatuko lehiaren benetako murrizketarik ez gertatzea.

35.1.3.2.- Ez da baimenik emango kontratua lagatzeko, baldin eta lagapen horrek kontratistaren ezaugarriak nabarmen aldatzen baditu, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementu badira.

35.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailearen) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatuko da.

35.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko lagapen-hartzailearena formalki eratuta egon arte.

35.2.- ABEEaren osaera aldatzea.

35.2.1.- ABEEaren osaera aldatzeak hura osatzen dutenen kopurua handitzea, murriztea edo kide bat edo batzuk beste batez edo batzuez ordeztea badakar, honako jarduera hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak aldaketaren baimena eskatzeko idazkia bidaliko dio kontratuaren arduradunari. Eskabide horri honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- ABEEaren osaera aldatzea eskatzeko aukera ematen duten inguruabarren justifikazioa.

- ABEEak, bere osaera berriarekin, eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela eta kide guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duten agiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedura hastea erabakitzen duena.

3. Kontratuaren arduradunak emandako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatu dela adierazten duena.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak ABEEa eta haren osaera berria formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena, eta ABEE kontratistari jakinaraztea.

7. ABEEaren osaera kontratatzailearen profilean aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea.

8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEak berme berria gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Ez da itzuliko edo ezereztuko ABEEak aurretik emandako bermea, harik eta ABEE berria formalki eratuta egon arte.

35.2.2.- Baldin eta, ABEEa osatzen duten osagaietako batekin bat egitearen, zatiketaren edo jarduera-adarra eskualdatzearen ondorioz, sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ABEEko kide ez bada, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan adierazitako izapide berberak beteko dira, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20ko exekuzioari dagokiona izan ezik.

35.2.3.- ABEEko kide bat edo batzuk konkurtsoan deklaratzen badira, baita likidazio-fasea ireki bada ere, SPKLren 69.9 artikuluaren c) letran xedatutakoa beteko da, SPKLren 212.5 artikuluan

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

kontratua gauzatzeko berme gehigarri nahikoak emateari buruz xedatutakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, honako jarduera hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide baten edo batzuen konkurtso-egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, honako eskaera hauetako bat egiteko:

• Gainerako osagaiekin kontratua gauzatzen jarraitzea. Kasu honetan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi behar da.

• ABEEko hasierako kideekin kontratua gauzatzen jarraitzea, konkurtsoan deklaratutakoak barne.

2. Baldintza orokorrei buruzko 35.2.1 klausularen 2. puntutik 9. puntura bitartean (3. puntua izan ezik) deskribatutako izapideak egitea. Eta kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kontratua bere osagai guztiekin egikaritzen jarraitzen duela, baita konkurtsoan deklaratutakoekin ere, ABEE kontratistak behar besteko berme osagarriak jarri beharko ditu kontratazio-organoak kontratua behar bezala egikaritzeko, bere ebazpenean adierazi bezala.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

36.- BETETZEA: EMATEA, HARRERA ETA LIKIDATZEA

36.1.- Entregatzea eta behar bezala betetzen dela egiaztatzea.

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak PPTPn ezarritako zehaztapenen eta baldintza orokorren 8. klausulan adierazitako epeen arabera emango dira.

PPTPn besterik aurreikusten ez bada, entrega-data hau izango da:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari ematen dizkion eguna, PPTPn zehaztutako moduan eta formatuan.
- Segidako traktuko kontratuetan: kontratuaren iraupen osoa amaitzen den eguna.

Entregatzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere hamabost (15) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak behar diren egiaztapenak egingo ditu itundutako baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko, eta egiaztapen-txosten bat egingo du, zentzu hauetakoren batean:

a) Baldintzak bete direla ondorioztatuko balu: kontratua jasotzea eta egikaritzeko dataren proposamena egingo luke, eta txostena kontratistari igorriko lioke, eta espedientea egiaztapen fisikoaren pean badago, Kontrol Ekonomikoko Bulegora.

b) Betetzen ez direla ondorioztatzen badu: hautemandako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta horiek zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena kontratistari bidaliko dio, zuzenketa zein epetan egin behar duen zehaztuz eta txostenean jasotako ondorioei idatziz erreklamazioa aurkezteko aukera duela jakinaraziz, bost (5) egun balioduneko epean.

Kontratistak ez badu erreklamaziorik aurkezten adierazitako epean, ulertuko da bat datorrela jarraibideekin, eta ikusitako akatsak zuzendu behar dituela.

Kontratistak erreklamazioa adierazitako epearen barruan egiten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari helaraziko zaizkio, eta organo horrek hamabost (15) egun balioduneko epean ebatziko du.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

36.2.- Akatsak zuentzea.

36.2.1.- Akatsak zuzentzeko epea igaro ondoren, kontratuaren arduradunak dagozkion egiaztapenak egingo ditu emandako jarraibideak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko, eta gehienez hamar (10) egun balioduneko epean, beste egiaztatze-txosten bat egingo du:

a) Zuzen bete direla ondorioztatzen bada: baldintza orokorren 36.1 klausulako a) atalean adierazitako jarduerak egingo ditu.

b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: hautemandako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta egiaztapen-txostena kontratistari eta kontratazio-organoari bidaliko die, zigorrak ezartzeko proposamenarekin batera, eta, hala badagokio, gertatutako inguruabarrak kontuan hartuta, honako jarduera hauetakoren bat egiteko:

1. Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea, bermea konfiskatuta, eta kontratistak botere esleitzaileari sortutako kalte-galerak ordaindu behar izatea, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gora.

2. Akatsak zuzentzeko beste epe bat ematea, kontratuaren prezioaren edo gehienezko aurrekontu mugatzailearen % 25erainoko zigorra ezarrita.

Kontratistak ez badu konpontzen horretarako emandako bigarren epean, kontratua suntsiarazi egingo da, bermea konfiskatuz eta kontratista behartuz botere adjudikatzaileari eragindako kalte-galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorakoak direnean.

36.2.2.- SPKLren 314. artikuluak arautzen ditu obra-proiektuak egiteko kontratuetan egindako akatsak zuzentzeko arauak.

36.3.- Jasotzea.

Nolanahi ere, kontratua jasotzen den arte, kontratista hitzartutako baldintzak behar bezala betetzearen erantzulea izango da, eta ez du salbuetsiko, ez eta eskubiderik emango ere, kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena egin izanak edo zerbitzu partzialen ziurtagiriei adostasuna eman izanak.

Kontratuaren arduradunak hitzartutako baldintzak behar bezala bete direla ondorioztatzen badu, kontratua jasoko da.

Harrera-egintzara kontratuaren arduraduna eta kontratista ordezkatzen duen pertsona joango dira, eta, espedienteak egiaztapen fisikoa behar badu, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat. Kontratuaren arduradunak egin beharko du ekitaldirako deialdia, eta bost (5) egun baliodun lehenago bidaliko da. Harrera-ekitaldiaren bi ale egingo dira, eta bertaratutako guztiek sinatu beharko dituzte.

36.4.- Likidazioa.

Kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean eta/edo kontratuaren berariazko klausuletan SPKLren 309.1 artikuluaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa berariaz jaso denean, harrera- edo adostasun-aktaren datatik hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratazio-organoak dagokion likidazioa adostea erabakiko du, jakinarazi egingo zaio eta, hala badagokio, kontratistari ordainduko zaio, baldin eta faktura hura jaso zen dataren ondoren aurkeztu ez bada.

Kontratistak faktura jasotze dataren ondoren aurkeztu bazuen, hogeita hamar (30) eguneko epea kontratuaren berariazko klausulen 18.3 klausulan adierazitako erregistroan faktura aurkezten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Likidazio-saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

37.- BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA

37.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren berme-epea kontratua jaso eta hurrengo egunean hasiko da, eta, epe horretan, kontratista behartuta dago egindako lanen akatsak zuzentzera, bere kontura, baldin eta akats edo huts horiek badaudela egiaztatzen bada eta idatziz jakinarazten bada.

Baldin eta, akatsak edo hutsuneak forman eta epean zuzentzea erreklamatu ondoren, kontratistak ez baditu zuzentzen, botere adjudikatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluan ezarritako nahitaezko betearazpenerako baliabideak erabili ahal izango ditu.

Berme-epea igarotakoan botere adjudikatzaileak ez badu zuzenketa behar bezala eta epean eskatu, kontratistak ez du erantzukizunik izango egindako prestazioagatik, hargatik eragotzi gabe SPKLren 314. eta 315. artikuluetan obra-proiektuak egiteko kontratuetarako ezarritakoa.

37.2.- Bermea itzultzea.

37.2.1.- Kontratuan berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakian bermea itzultzeko edo ezerezteko agindua ere jasoko da.

37.2.2.- Kontratuan berme-epea ezartzen bada, epe hori igaro ondoren, honako jarduera hauek egingo dira:

a) Berme-epean ez bada erreklamaziorik aurkeztu ez forman ez epean, edo, aurkeztu arren, zuzendu egin bada: kontratazio-organoak ebazpena emango du bermea itzultzea edo ezereztea erabakitzeko.

Ebazpena bi (2) hilabeteko epean hartu eta jakinaraziko zaio kontratistari, berme-epea amaitzen denetik hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dagokion botere adjudikatzailearen organo baliokideari jakinaraziko zaio.

b) Berme-epean erreklamazioak aurkeztu badira, behar den moduan eta epean, eta kontratistak ez baditu zuzendu, kontratuaren arduradunak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, erreklamazioa berriro jar dezan edo, nahikoa dela uste badu, konpon dezan. Horretarako, epe bat emango dio, eta, epe horretan, kontratistak jarraituko du lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren arduradun izaten, SPKLren 311. artikuluaren 2. apartatuan deskribatutako moduan, eta ez du inolako kopururik jasotzeko eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak horretarako emandako epean, bermea konfiskatu egingo da, eta kontratistak botere adjudikatzaileari ordaindu beharko dizkio konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galerak.

37.2.3.- Kontratuko klausula espezifikoen 8.5 klausulan bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea onartzen bada, baldintza orokorren 37.1 eta 37.2 klausuletan ezarritakoaren arabera jokatuko da. Berme-eperik ezarri bada, hura zati bat jaso eta hurrengo egunean hasiko da.

Era berean, bermeari dagozkion gauzatze-baldintza bereziak bete ezean, baldintza orokorren 33.2 klausulan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

37.2.4.- Kontratua amaitu eta urtebete (1) igaro ondoren, eta berme-epea amaitu eta oraindik ez badira formalki jaso edo likidatu kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, bermeak itzuli edo ezereztu egingo dira, SPKLren 110. artikuluak aipatzen dituen erantzukizunak argitu ondoren.

Aurreko paragrafoan adierazitako urtebeteko (1) epea sei (6) hilabetera murriztuko da honako kasu hauetan:

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

a) Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000 eurotik beherakoa denean.

b) Kontratistak enpresa txiki edo ertainaren betekizunak betetzen dituenean, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera definitua (Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzen da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz), eta betekizun horiek betetzen ez dituen beste enpresa batek zuzenean edo zeharka kontrolatzen ez dituenean.

38.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan eta 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan xedatutakoez gain, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuetan, eta, hala badagokio, kontratuaren berariazko 16. klausulan jasotakoez gain, kontratua suntsiarazteko kausa dira honako hauek:

a) Botere esleitzailea zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

c) ABEEren kasuan, kideren bat SPKLren 211. a) eta b) artikuluko kasuan sartuta badago, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak betetzeko eskatzeko edo kontratua suntsiarazteko.

VII.- INZIDENTZIAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENAK

39.- INZIDENTZIAK

39.1.- Kontratazio-organoaren eskumenak.

Kontratua interpretatzean, betetzean sortzen diren zalantzak argitzean, aldatzean, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztean, exekuzioa etetean, suntsiaraztean eta administrazio-kontratuetan exekuzio horrek dituen ondorioetan sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta bere erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari. Kontratazio-organo horren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta, horien aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo berari hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

39.2.- Prozedura.

Agiri honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian kasu zehatzetarako ezarritakoa salbu, kontratua gauzatzean eta iraungitzean botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean sortzen diren gorabehera guztiak espediente kontrajarriaren bidez izapidetuko dira, eta espediente horretan honako jardun hauek jaso beharko dira nahitaez:

a) Botere esleitzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Kontratistari entzunaldia ematea bost (5) egun balioduneko epean. Kontratua suntsiarazten denean, kontratistari hamar (10) egun naturaleko entzunaldia emango zaio, baldin eta kontratuaren suntsiarazpena kontratazio-organoak ofizioz erabakitzen badu.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Aholkularitza juridikoaren txostena, hala badagokio.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, hala badagokio.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

f) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari jakinaraztea.

Interes publikoko arrazoiek justifikatzen ez badute edo gorabeheren izaerak hala eskatzen ez badu, prozedura hau izapidetzeak ez du kontratua geldiaraztea ekarriko.

40.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da SPKLren 44.2 artikuluan aurreikusitako egintzen aurkako kontratazio-arloko errekurtso berezia ebazteko organo eskuduna, SPKLren 44.1 artikuluan jasotako kontratuei dagokienez, bai eta behin-behineko neurriak hartzeari buruz erabakitzeko ere.

SPKLren 44.1 artikuluan jasota ez dauden kontratuei buruz emandako egintzei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak jarri ahal izango zaizkie (112., 121. eta 123. artikuluak).

Kontratua kontratazioaren arloko errekurtso bereziaren xede bada, honako arau berezi hauek aplikatuko dira, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

a) Kontratazio-organoak ezin izango du kontratua formalizatu harik eta esleipenaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamar egun natural igaro arte. Kasu horretan, kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzeko epea hamar egun naturalekoa izango da, hala badagokio, eta SPKLren 50.1 artikuluan ezarritako moduan zenbatuko da.

b) Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak berariaz adierazi beharko du, errekurtsoa jartzen denetik bost egun balioduneko epean, SPKLan ezarritako onartezintasun bat gertatzen dela, eta hartutako kautelazko neurriak mantentzen direla, etendura automatikoko kasuak barne.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

LABURPEN TAULA

I. KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKO BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

☒	I.1.ERANSKINA	KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIAREN KALKULUA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK

II. "A" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA.

☒	II.0.ERANSKINA	DATU PERTSONALAK
☒	II.1.ERANSKINA	EKAB. OSATZEKO JARRAIBIDEAK.
☒	II.2.ERANSKINA	BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA
☒	II.3.ERANSKINA	ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA
☒	II.4.ERANSKINA	ABEE FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5.ERANSKINA	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK

Izapidetzeko bitartekoak "ez-elektronikoak" direnean bakarrik":

☒	II.6.ERANSKINA	JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

III. "B" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	III.1.ERANSKINA	ESKAINTZA EKONOMIKOA
☒	III.2.ERANSKINA	FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK PROPOSATZEKO EREDUA

IV. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOA.

☒	IV.1.ERANSKINA	KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK ESKURA IZATEA
☒	IV.2.ERANSKINA	SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
☒	IV.3.ERANSKINA	INTERES-GATAZKARIK EZARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)
☒	IV.4.ERANSKINA	ZERBITZARIEN ETA HAIEI LOTUTAKO ZERBITZUEN KOKAPENAREN ADIERAZPENA

V. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

☒	V.1.ERANSKINA	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

I.1.ERANSKINA- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIAREN KALKULUA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartu diren kostuak eta gastuak, 008/2025 espediente-zenbakia dutenak, honela banakatu dira:

Zuzeneko Kostuak Produkzioko Zeharkako Kostuak	30,35% 21,05 %	6.374,52 € 4.419,48 €
INDUSTRIA-KOSTUA	%51,40	10.794,00 €
EGITURA-KOSTUA	%39,40	8.274,27 €
FINANTZA-KOSTUA	%0,43	90,03€
INDUSTRIA-MOZKINA	%8,77	1.841,70 €
GUZTIRA (BEZ GABE)	**%100**	**21.000,00 €**
BEZ	%21	4.410,00 €
GUZTIRA (BEZ-AREKIN)		**25.410,00 €**

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko (gutxi gorabeherakoa) honako banaketa hau hartu da kontuan: zuzeneko kostuak (lehengaien eta langileen kostua) + zeharkako kostuak (produkzio-gastu orokorrak) = industria-kostua, egitura-kostuak (gainerako ustiapen-gastuak, hala nola, telefonia, zerbitzua behar bezala emateko behar diren zergak ordaintzea, aseguruak ordaintzea, tasa eta gordailu judizialak, amortizazioak...; administrazioko eta zerbitzuetako gastu orokor zentralizatuak edo aurreikusitako mugak gainditzen dituztenak), finantza-kostuak eta kontratistaren industria-mozkina.

Banaketa egokia zenbatesteko, kontuan hartu dira Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentraleko datu-baseetan jasotako datu estatistikoak (sozietate ez-finantzarioen ratio sektorialak – N829; Bestetan sailkatu gabeko enpresei laguntzeko jarduerak).

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.0.ERANSKINA- DATU PERTSONALAK

[1] .....jaun/anderea, ...NAN zenbakiduna, bere izenean edo (operadore ekonomikoa) ordezkatuz..... ....., ...IFZrekin *(*operadore ekonomikoa); ..... zenbakiko espedientea duen kontratua esleitzeko prozedurari dagokionez

ADIERAZTEN DU:

1.- Erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen duenak eskaintza aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo enpresaren ordezkaritza duela.

2.- Erantzukizunpeko adierazpen hau aurkeztu duela, bertan jasotako datu pertsonalak barne, datu pertsonal horiek nahitaez sinatu eta aurkeztu behar diren administrazio-klausula zehatzen agiriko gainerako eranskinetan aldi berean erreproduzitu behar ez izateko, horrela datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko arauak eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak betetzen direla zaintzeko.

.....en, 2025-eko .....-ren.....-an

Sinatuta:

[1] Bi operadore ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute eta esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoa hartzen badute, deklarazio hori operadore guztien ordezkariek sinatu beharko dute.

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua —pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra)— eta datuak babesteko indarrean den gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak **«Kontratazioaren kudeaketa»** izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla:

1. Arduraduna: dagokion Kontratazio organoa.

2. Helburua: kontratazio publikoaren prozedura kudeatzea, fase guztietan, barnean direla exekuzioa, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, bai eta adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotz dakizkiokeen eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.

3. Legitimazioa: Interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko beharrezko tratamendua, eta, horretarako, tratamenduaren ardura duen organoari aplikatu beharreko legezko betebehar bat betetzea.

4. Hartzekodunak: Interes legitimoa duenari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

5. Eskubideak: Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere.

INFORMAZIO OSOA V.1 ERANSKINEAN, «DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA»

Otaola etorbidea, 29 - Jaizkibel eraikina, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
Telefono-zenbakia: 943-821750 – e-posta: haurreskolak@haurreskolak.eus

II.1.ERANSKINA- EKAB. OSATZEKO JARRAIBIDEAK.

Erantzukizunpeko adierazpenari dagokion eranskina Europako Kontratazio Agiri Bakarraren eredu normalizatuaren bidez bete ahal izateko, lizitazio-iragarkiko "*Xedea*" fitxan dagoen ***"EKAB laguntza-eskuliburua"*** dokumentuan adierazitako urratsak jarraitu beharko dira. Pauso horiek eranskin honetan daude laburbilduta:

1.- Deskargatu zure ekipoan Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman eskuragarri dagoen fitxategia EKAB.xml - lizitazio honen Xedea fitxa.

